



ARGIA

Pederastia Derioko seminarioan

BIKTIMA BATEN AHOTIK KASUA ARGITARA

*"Bere bulegoan
zakila ateratzeko
eskatu eta ukitu
egiten zidan"*



**Hormigoiak itoko
gaitu, garapenaren
kokaina**

10 | NET HURBIL



**Benalla-Macron
eskandalua,
Estatu afera**

22 | NAZIOARTEA



**"Euskal aktoreok
aukera gutxi
dugu telebistan"**

44 | ITZIAR ITUÑO

ELKARTASUN KONTZENTRAZIOA

Martxoak 20 11:30

Donostian Epaitegiaren Aurrean (Egia)



Hizkuntz eskubide baten urraketaz informatzeagatik epaituak?!

 #UtziArgiaBakean

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | GAIZKI ERRANKA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI
- 18 | ZIGOR ETXEBURUA URBIZU
- 18 | LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI
- 19 | IRATI ELORRIETA
- 20 | JOSE IGNAZIO ANSORENA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 50 | ZUZENKO EMANALDIA
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
M. LANZ, O. LLORENTE, A. LOPEZ
- 54 | BERANDUEGI



22 | BENALLA-MACRON KASUA

Jenofa Berhokoirgoinek Frantziako Estatuak astindu duen kasuaz elkarrizketatu du Antton Rouget kazetaria. Gobernuaren baitan egon daitezkeen tratu eta joko zikinen ilustrazio ezin hobea da afera osoa.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL
Hormigoiak itoko gaitu: materialik suntsitzaileena garapenaren kokaina
Pello Zubiria Kamino

12 | SERGIO MARINAO, MAPUTXEA
"Ama hizkuntza dut gaztelania, baina ez da gure hizkuntza"
Miel A. Elustondo

27 | ARGIAK 100 URTE
Iruñearen euskaltasunerainoko bidaia
Gorka Bereziartua Mitxelena

32 | NORTXU NUÑEZ
"Uste nuen Gasteizen Euskaraldia eta gero piztuko zela euskara, baina bai zera"
Miel A. Elustondo

34 | SEXU ABUSUAK
Pederastia Derioko seminarioan
Juan Mari Arregi

44 | ITZIAR ITUÑO
"Madrilera joan nintzen lan egiteko aukerarik ez nuelako Euskal Herrian"
Lander Arretxea Bereziartua

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irueta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia
943371545

Ametzagaña taldeko kidea da Argia honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software productions

Doan eta libre

Argiako edukiak kopiatu, moldatu, zabandu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

OLATUKOOP

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNDUA)

Mugaz gaindiko dibertimendua

ARGAZKIA | JOSU SANTESTEBAN
TESTUA | AXIER LOPEZ

"Gazteak euskarari lotzeko, eta euskara plazerarekin lotzeko tresna ederra da Libertimendua". Makeako libertimenduan idazle aritu den Xan Berterretxeren hitzak dira. Eta ideiek ez dutenez mugarik ezagutzen, Iruñeko gazte euskaldun batzuek hitz horien esanahia jaso eta beren gorputzetik iragan dituzte. Emaitza: satira, kritika, zirtzilkeria, antzerkia, dantza eta musika koktela. Inauteria. Ala beste manera batez esanda: Libertimendua. Baxenafarroatik Nafarroa Garaira egin du jauzi, igandean, hiri buruzagian.



KONTUZ!!!
BILIZATUTAKO
EMU!!!





JORGE ARÉVALOK (EZKERRETIK BIGARRENA) ETA CRISTINA URIARTEK (ESKUINETIK BIGARRENA) AZALPENAK EMAN BEHARKO DITUZTE EUSKO LEHEBILTZARREAN. IRUDIAN, IÑIGO URKULLUREKIN, TKNIKARA EGINDAKO BISITA BATEAN.

FINANTZAZIO IRREGULARRA LANBIDE HEZIKETAN?

Azalpen gutxi, zalantza asko

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

ARGIAN eman genuen eskusiba: Lanbide Heziketako irakasleak enpresaz enpresa proiektuak saltzera bultzatzen ditu Jaurlaritzaren programa batek eta enpresei saldutako proiektuen arabera diru publiko gehiago edo gutxiago jasotzen dute ikastetxeek. Erreportajearen ostean, programa horretan “irregularitasun zantzuak” antzemanda hainbat galdera luzatu dizkio Iñigo Urkulluri EH-Bilduk, baina horren guztiaren berririk ez zuela erantzun du lehendakariak, eta zalantza asko argitu gabe gelditu dira.

Lehendakaritzaren izenean egiten den eta Lehendakaritzatik zuzenean 1.400.000 euroko partida duen programaren jarraibideaz berririk ez duela adierazi du Urkulluk: ez ikastetxeetara bidaltzen diren eginbeharrez, ez programak duen %25eko diru-laguntzaz, ez zein irizpideren arabera osatzen den ikastetxeek jasotzen duten enpresen zerrenda, gero irakasleek enpresa horien atea jotzeko. Urkulluk argudiatu du programa horren garapen operatiboa Lanbide Heziketako

Sailburuordetzak daramala, eta horregatik, Rebeka Ubera legebiltzarkideak lehendakariari zuzendutako galderak Sailburuordetzak erantzun ditu.

Sailburuordetzak, ordea, ez ditu hainbat gauza argitu. Programa arautzen duen dekreturik ba al dagoen galdetuta, arau orokorrekin erantzun dute, baina ez da ematen programari lotutako inongo dekretu zehatzen berri. Irakasleek enpresei egindako lan bakoitzagatik ikastetxeak jasotzen duen %25eko diru-laguntza publikoa ofizialki jasota al dagoen ere ez da argitzen. Eta ikastetxeetara bidaltzen den enpresen zerrenda ea zein irizpideren arabera osatzen den eta zerrendan parte hartzeko deialdi publikorik ba al dagoen galdetuta, ikastetxeek “informazio gisa” erabiltzeko zerrenda bat dela erantzuten da, garrantzia kendu nahian.

Sailburuordetzak dio irakasleak ez direla saltzaile lanetan ari. Baina artikuluan nabarmendu genuenez, parte hartzen duten ikastetxe guztiak urtean gutxienez 30 enpresa bisitatzea derrihortzen ditu programak, eta enpresei

egia ez kontatzeko esaten die Jaurlaritzak irakasleei, ARGIAk eskuratutako dokumentuan: “Ikastetxeak bisitak egiteagatik diru bat jasotzen duela ikusarazten badiegu enpresei, laguntzera gerturatzeko agente bat bezala orde, gerta liteke bisitak egiteko interesa duen agente bat bezala ikus gaitzabela”. Alegia, komertzial bat bezala.

Programa, diote, “ez da irakasleentzako obligazio gisa planteatzen, baizik eta parte hartzeko gonbidapen” gisa. Artikuluan kontatu genuenez, baina, diru-iturri inportantea bihurtu da programa hau Lanbide Heziketako ikastetxeentzat.

Sailburuordetzaren arabera, “ikastetxeen finantzazioa ez dute zehazten hainbat enpresetara egindako bisitek”, baina programa honek 1.400.000 euroko diru-poltsa banatzen du ikastetxeen artean, eta zenbat eta enpresetara bisita gehiago egin eta proiektu gehiago saldu, orduan eta baliabide ekonomiko eta pertsonal publiko gehiago jasotzen ditu ikastetxeak. Hori ez al da finantzazioa baldintzatzea? ●

GAIZKI ERRANKA

Erregimena, titular bakarrean



SANTI LEONÉ

E*l Correok* dio Urkulluk erran duela Puigdemontek bide unilaterala hartu zuela kalea “matxinatzen ari zitzaielako” –komatxoak *El Correorenak* dira: hitzez hitz biltzen omen du titularrak Urkulluk errandakoa-. Lerroa Guillem Martinezen tesien hondarreko degradazioa izan liteke –*procés*eko lider politikoek ez zuten independentzian sinesten; aitzitik, krisi testuinguru batean, beren burua salbatzen saiatzen ari ziren, eta abar-, baina ukitu kontserbadore batekin, hain zuzen ere komatxoen arteko aditzak biltzen duen ukituarekin. Zeren kalea matxinatzea, lagunok, beti da txarra, eta matxinaturiko kaleari kasu egiteak desastrea bertzerik ez du ekartzen ahal.

Esaldi bakarrean, *El Correok* eta euskaldunen lehendakari bakarrak demokrazia formalaren eta 78ko erregimenaren gaineko lezio ederra eman digute: jendeak txintxo-txintxo bozkatzen du, hautaturiko politikariek legeak egiten dituzte, lege horiek –direnak direla ere– lege demokratikoak dira eta protestatu gabe bete beharrekoak. Hortik kanpo, ez da deus. Inork ez zukeen hobeki adieraziko. Tira, norbaitek bai, mintzatzeko maneran ez ezik, nonbait ideologian ere Urkulluren *doppelgänger* den Espainiako erregeak: ustezko demokrazia ez dago legearen gainetik. Kalea matxinatzen bada, erantzuna *a por ellos* da; ez, ordea, inolaz ere ez, matxinatuen buru bihurtzea.

El Correoko lerroburuak gorazarre pixka bat egiten dio lehendakariari, zeinari kalea ez baitzaio matxinatu eta zeinak Espainiaren eta Euskadiren arteko bilateraltasunean konfiantza osoa baitu. Fantasia horrek prozesu independentista bat zer den ulertzeko beharko lukeen gutieneko enpatia ere kentzen dio, eta izua bertzerik ez dio uzten: herritarrak aldarrikapen demokratikoak egiten, eta politikariak haiekin bat egiten? Burugabekeria handiagorik! ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

ADUR

“BATZUEK GORDEA DUTEN GORROTOA AZALERATU DU ZIGOR HONEK”

BIXINTXO BILBAO, PILOTARIA

Munduko pilota txapelketako sari banaketan ikurrina erakusteagatik isuna jarri zioten ziburutarrari. Ondoren, kendu egin zion zigorra Nazioarteko Pilota Federazioak. “Beren buruari Euskal Pilotaren Nazioarteko Federazioa deitzen diote, eta guk ezin dugu ikurrina erakutsi. Hori falta larria omen da. Euskal pilotari gisa ez gara onartuak izan, ez baitago selekzionik (...) ez jokatzeari ere ez da konponbidea, (...) nik jokatu nahi dut, eta, irabazten dudalarik, erakustea nongoa naizen, eta nire koloreak erakustea” **BERRIA (2019/02/27)**



M3tik M8ra, intsumisioa kapitalismoari



JUAN MARI ARREGI

Martxoaren lehen aste honetan bi data garrantzitsuk bat egiten dute: Gasteizen martxoaren 3an duela 43 urte gertaturiko bost grebalariren sarraskia batetik, eta martxoaren 8an antolatutako emakumeen greba orokorra bestetik.

Bi egunek lotura dute gizon eta emakume otzanak nahi dituen sistema kapitalistaren kontrako borrokarekin. Eredu hori babesten dute gobernuek eta bere fronte mediatikoak, izan telebista, prentsa zein irratietakoak.

1976an Gasteizko langileek kapitalismoari aurre egin zioten greba luze baten bidez, euren lan eskubideen defentsan, eta sindikalgintza bertikalari auto-antolakuntzarekin eta asanblearismoz erantzun zioten. Sistema politiko eta ekonomiko harekiko intsumisio izan ziren; horregatik jasan zuten errepresio basatia, eta horregatik hil zituzten bost lagun. Ardura politikoak argitu gabe daude oraindik.

Martxoaren 8rako deituriko grebarekin, emakumeak ere intsumisio izango dira, kapitalismoari intsumisio, soldata arrakala dakarkielako, gizon eta emakumeen arteko desoreka, prekarietatea eta bazterkeria. Sistema horrek defendatzen dituen baloreek (berekoikeria, kontsumismoa, lehia...) autoritarismoa, matxismoa eta biolentzia sexista baizik ez dute sortzen.

Egun egokiak eta beharrezkoak dira aste honetakoak, eta urte osoan izaten ditugunak ere bai, hausnarketa sakon baten ondorioz gizon eta emakumeek intsumisioa praktikatu dezagun; gizarte justu, libre eta berdintasunezkoago baten alde mobilizatu gaituzten. Desorekak, arrakalak eta indarkeria babesten dituen eredu baten kontra errebelatu eta eskubide guztiak errespetatuko dituen beste eredu baten alde egiteko abagunea daukagu. ●



EL SOBRERATO

Diskurtsoa, M8aren indarra

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Beste greba feminista arrakastatsu baten ateetan garelako usaindu daitekeen arren, neure buruari iazkoa adinako indar erakustaldia egingo ote dugun galdetzeari ezin lagata nabil. Listoia altu jartzearen albo-kalteak, besterik ez. Erratuta dabil arduraren mamarroa, indarra emakume* kopuruaren arabera zenbatzen. Isilarazteko, aurtengo greba deialdiari begira Mugimendu Feministak azpimarratu duena aurpegiatzen diot: jendetsua izateaz gain, diskurtso politikoaz hornituriko emakumez* osatua izateak bilakatzen duela, izatez, arrakastatsu greba. Ez dagoela balizko iraultza feministarik, emakume* horiek guztiak antikapitalista, antikolonialista eta heteroarauaren kontrako feminismoa aldarrikatzen ez badute. Nahiz eta bereizketa ideologikorik ez egiteak *New York Times*-en publikatzeko adinako argazki ederrak erraztu ahal dizkigun.

Grebak biltzen duen jendetzak aipatu diskurtsoa barneratu dezan lortzea, tanto erabakigarria litzateke feminismoarentzat. Xede horretan, aldeko izan daitekeen faktore bat bada: feminismoa modako egotea, erakargarri izatea. Nahiz eta honakoa, aski jakina denez, aho biko ezpata den berez. Orain gutxi argi mintzatu zitzaidan honetaz Brigitte Vasallo: zioen modan egoteak aspektu identitario bilakatzen dituela borrokak, ez jarrera kontu. Geure burua feministatzat hartu dezakegula praktika patriarkal nabarmenak izanik, alegia. Ustez, zapalkuntza ororen aurkako diskurtsoa izateak berez ezabatu beharko luke halako arriskurik, baina modak –sistemak berak finean– denoi eragiten digula ez da gauza berria. Hala bada, zaintzak erdigunera ekartzera goazen honetan, geure jarreraren zaintzari tokia egitea ez legoke soberan. Hartu-emanen horizontaltasuna neurtzeak eta afektuak, besteak beste, dezente dutelako iraultzailetik. Zaindu beharrekotik.

Zaintzaren ardura kolektiboa aldarrikatzen dugun honetan, mendeko eta zaugarri garelako onartu dugula ulertzen da. Hala bada, ondokoak norberarekin konparazioan duen zaugarritasunaz baliatzea botere-harreman patriarkalei bide ematea litzatekeela ondorioztatzeko adina badakigu, errotoz atera beharreko jarrera dela dakigun era berean. Jendarte eraldatzeko xedeari jarraiki mundua gelditu, hankaz gora jarri eta berregituratu baitezakegu, baina eraikiko dugun jendartera jokamolde patriarkalak eramanez gero, lurzoru berrian zer ereiten bukatuko dugun argi baitago. Ekiditeko, diskurtsoz bezainbeste armatu gaituzten autodefentsaz eta ahizpatasunez. ●

Hiriko auziko alde penala epaiketarik gabe itxi da

ARGIA

17 milioi euro publiko irentsi ondoren, Hiriko auziaren alderdi penala artxibatu du Arabako Auzitegi Probintzialak, proiektuaren bultzatzaileek delituzirik egin zutela ondorioztatzeko froga nahikorik ez dagoela adieraziz.

AURREKARIAK

Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak 17 milioi euroko laguntzak eman zizkieten Hirikoren arduradunei Araban ekoiztu behar ziren “euskal auto elektrikoaren” proiektua garatzeko, baina egitasmoa ez zen inoiz gauzatu. Alderdi administratiboaren epaia 2017an egin zen publiko eta kondena arina jarri zien epaituei, kasuaren tamaina kontuan izanda: 530.000 euroko isuna eta bi urteko inhabilitazioa Afypaida enpresa sortu zutenentzat.

EBAZPENA

Bide penaletik, diru publikoa bidegabeki erabiltzea, diru-laguntzetan iruzurra egitea eta bidegabeko jabetzea leporatuta, Hiriko auto elektrikoaren proiektua bultzatu zuten lau pertsonak akusatu zituzten. Gutxienez hiru urteko kartzela-zigorra jaso zezaketen eta gehienez hamabikoa, baina epailearen erabakiaren ondoren, libre geratuko dira, ahozko epaiketarik egitera iritsi gabe. Auzia “behin behinean” artxibatu da eta froga berriak agertuko balira, berriz irekitzeko aukera legoke.



PROCÉS-A HIZPIDE

MADRIL. Espainiako Auzitegi Gorenean lekuko gisa deklaratu du Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkulluk. Generalitatearen eta Espainiako Gobernuaren artean “elkarrizketarako bide bat” ireki eta “blokeo egoera” gainditzea helburu, bitartekotza egin izana onartu du. Gaineratu du ez zuela Rajoyrekin autodeterminazio eskubideaz hitz egin, eta erreferendumaren gainean ere negoziatuz ez zela izan.

SEASKA

127.000

euro behar ditu Seaskako Integrazio Batzordeak. Ahalmen urritasun egoeran diren haurren gurasoen eta lagunen elkarteak osatzen du Batzordea.

111 haur laguntzen ditu gaur egun batzordeak eta 20 urte beteko ditu aurtien.



XABIER ARZALLUZ HIL DA. Eusko Alderdi Jeltzaleak eman du Xabier Arzalluz Antiaren heriotzaren berri. 86 urterekin hil da. Urte askoan EAJko Euskadi Buru Batzarreko presidente izandakoa, Euskal Herriko historia hurbileko politikari esanguratsuenetakoa izan zen (Azkoitia, 1932 - Bilbo, 2019).



EGUNKARIA. Euskaldunon Egunkaria-ren 3.789 zenbakiak sareratu ditu *Berriak*. 200.000 orrialdeko hemeroteca dago interneten. 1990eko abenduaren 6an argitaratu zen lehen zenbakia, eta azkena 2003ko otsailaren 20an. Guardia Zibilak itxi zuen, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz.



VENEZUELA. Venezuelari elkartzuna adierazteko agenda bateratua sortu dute Caracasen bildutako nazioarteko 400 ordezkari bano gehiagok. Hiru egunez, Herrien Nazioarteko Asanbladan bildu dira, tartean Euskal Herritik joandakoak. Nicolás Maduro presidenteak itxi du Asanblada.

HORMIGOIAK ITOKO GAITU: MATERIALIK SUNTSITZAILEENA GARAPENAREN KOKAINA

Betonarekiko adikzioak bizi du gizakiaren azken mendeko desarrolloa. Ura salbu, hormigoia da planetan gehien kontsumitzen den gaia. Plastikoa bezala hormigoia lagungarri izan zaio gure ongizate modernoari. Baina plastikoarekin gertatu bezala, orain hasi gara jabetzen bere benetako arriskuez. Zabortegiak betetzen ditu, hiriak gehiegi berotzen, milaka jende hil eta ekonomiak suntsitzen dituzten uholdeak eragiten, planetaren biziraupena mehatxatzen.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Artikulu hau leitzeko behar duzun denboran, irakurle, munduko eraikuntza industriak 19.000 bainuontzi bete hormigoi isuriko ditu. Egun bakar batean, Txinako Hiru Arroiletako Urtegiaren harresikoa adina. Urtebetean, Ingalaterrako bazter guztiak, ibar eta muino, betonez estaltzeko adina. Horrela hasi du Jonathan Wattsek *The Guardian* egunkarian “Concrete: the most destructive material on Earth” dossierra.

“Kalkuluak eginez gero –dio Wattsek– sortu dugun hormigoi pilak dagoeneko pisu handiagoa dauka planetako zuhaitz, sasi eta landare guztiena batuta baino. Bestela esanda, eraikitako inguru artifiziala handiagoa da naturala baino (...) Plastikotan 8.000 milioi tona pilatu dira 60 urteotan, asmatu zenetik: hormigoi industriak bi urtetan metatzen du hori baino gehiago. Plastikoa baino arazo handiagoa izan arren, ordea, ez da larritasun berarekin aztertzen”.

Betona bere iraupenagatik maite dugunez, eragindako arazok ere luzeago diraute. Ustez konpondu behar zituenak benetan nola okerragotu dituen denborarekin ikusten da. Lurraren inpermeabilizazioaren kalteez zalantzarik zuenak, 2005ean ireki ahal izan zituen begiak New Orleansen *Katrina* urakanak eragindako uholde izugarriekin: hormigoia-ri esker, lurra ezin zituen euriak irentsi. Planifikatzaileek, ordea, ez dute ikasi ez AEBetan, ezta Euskal Herrian ere.

Klimaren gaiztotzea dakarten CO₂ isurketen %4-8 betonaren ekoizte pro-

zesuari dagozkio. Baina klimarengan askoz eragin gehiago ere baditu. Munduak kontsumitzen duen ur guztiaren %10 hormigoitarako da; nekazariak so-roetan eta etxetan jendeak behar duten uraren lehiakide gorra.

Gutxitan aipatzen da hondarra, baina hormigoitarako area dagoen lekuetan erauzi eta urrun eramateak hondatzen ditu ekosistema asko, arrantza eta beste jende asko miserian utziz, korporazio handiek sikarioen esku lagata bertako herritarrak zanpatzeko lana.

Betonezko eraikin eta azpiegitura modernoek suntsitu dituzte berezko azpiegiturak, basoak, soroak, zelaiak, erreka... Gizakiak eta planetak berak beharrezkoak dituen funtzioak etenda utzi dituzte: lurzoruko bizia, polinizazioa, akuiferoen asetzea, uholdeen kontrola, oxigenoa sortzea, ura garbitzea.

Oxigenoa ebatsi dio politikari ere, Watts en esanetan. “Hormigoiak ore berrean nahastu ditu politikariak, burokratak eta eraikuntza konpainiak. Alderdietako buruzagiek hautatuak izateko eraikuntza enpresen diru-laguntzak eta bultzadak behar dituzte, administrazio-ko planifikatzaileek proiektu gehiago behar dituzte hazkundera eusteko eta eraikuntzako ugazabek kontratu gehiago behar dituzte dirua mugiarazi, langileei zertan aritua eman eta politikariengan eragina izaten jarraitzeko”.

Askotan aipatu arren inork gelditu ezin duen mekanika zoro horrek baizik ezin du esplikatzen politikariak zein bero

bultzatzen dituzten ingurumenetik bezala gizartearentzako etekinetik begiratuta nabarmenki alferrikakoak edo gutxienez eztabaidagarriak diren azpiegitura erraldoiak. Watts ingelesa baita, Joko Olinpiarrek eta Munduko Koparako han eraikitakoak aipatzen ditu; euskalduna balitz, batik bat Hegoaldean politikariak daukaten hormigoi-mendekotasunaren adibideen zerrenda luzea egin beharko luke.

GARAPENA ETA YAKUZA

Japonia aipatzen da hormigoi-adikzioaren adibide klasikotzat. Bigarren Mundu Gerraren ostean hain sutsuki ekin zion elite japoniarrek herrialdea betoneztatzeari, ezen eta bere aginte estiloa *doken kokka* bataiatu baitzuten, eraikuntzaren herrialdea. 80ko hamarkada amaiera arte primeran funtzionatu zuen, hazkunde tasa handiekin.

Orduko Mendebaldeko irakurleen belarrietaraino iristen ziren Alderdi Liberal Demokratiko buruzagien izenak: Kakuei Tanaka, Yasuhiro Nakasone, Noboru Takeshita... Ez zuten ezagutzen, ordea, agintari haien indarra ere eraikitzaile handien diru-laguntzetan oinarritzen zela: “*Doken kokka* sistema zen herrialde mailako *racket*-a, lapurreta”.

90eko hamarkadako krisiarekin hormigoia-aren etekinak asko murriztu ziren, baina orduan agintariak eta enpresaburuek, elkar hartuta, erabaki zuten makinari presioa areagotzea: zubi izu-



HARRESI BERRIA KABANOSAWAN

2011KO TSUNAMIAK LEHENGOAK
URRATURIK, HORMA HANDIAGOAK
ERAIKITZEN DITUZTE
JAPONIAN, HORMIGOIAREKIKO
MENPEKOTASUNEZ.

garri garestiak kasik biztanlerik gabeko eskualdeetaraino iristeko, autopista zabalak landa eremuetan barrena, ibai eta erreka bazter guztiak betonez berbideratzea, Japoniako kostaldea betirako babestuko omen zuten harresi handiak eraikitzea.

Japoniako paisaia asko betirako hondatzea, hori lortu zuten. Baina hormigoia segurtasun ustez muga gabea *Tohoku* lurrikarak zartatu zuen 2011n: minutu gutxitan tsunamiak urperatu zituen Ishinomaki, Kamaishi, Kitakami eta beste hainbeste herri, uhinek iren-tsirik itsas bazterrean eraikita zeuzkatzen babes-harresi garaiezinak.

16.000 pertsona hil ziren, milioi bat eraikin suntsitu, eta ezin sinestekoa: Fukushima zentral nuklearrak eztanda egin zuen! Aldatzeko garaia heldua, akaso? Ez, bada: Liberal Demokratik

itzuli ziren laster agintera, herritarrei aginduz hurrengo hamarkadan herri lanetan 200 biloi yen (1,6 bilioi euro) inbertituko zutela. Eraikuntza konpainia handiek ekin zioten itsas bazterrean are harresi handiagoak eraikitzeari, arrantzale herriak 12 metroko hormaz inguratuz, nahiz eta beren eraginkortasuna auzitan jarrita dagoen.

“Hormigoiak munduan –dio Wattsek– esan nahi du garapena. Teorian, giza aurrerapena zenbait erakuslerekin adierazten da: bizi itxaropena, hezkuntza maila eta beste. Baina lider politikoentzako erakuslerik handiena BPG Barne Produktu Gordina da, askogatik, horrekin kokatzen dute gobernuek beren lekua munduan. Eta horren osagai nagusietakoa hormigoia da”.

Japoniaren garapen ametsi garai oparoenak peldu ostean, gaur Txina

da XXI. mendeko ekonomia nagusi bilakatu nahi duena. Ondorioz, hormigoia super-txapelduna ere bihurtu da. Txinak erakusten du, bestalde, zementu, hondar eta urez osatutako material zahar-berri horrek nola eralda dezakeen naturarekiko elkarbizitzan oinarritutako kultura bat BPGean obsesioztatutako ekonomia baterantz.

Txinak 2003tik gaurdaino bere lurzoruan erabili du AEBek XX. mende osoan erabili duten adina hormigoia. Gaur mundu osoko beton kontsumoaren erdia Txinarena da. Yu Kongjian arkitektoak ohartarazia du zein arriskutsua den ziklikoki bere astinduek ematen dituen naturari bizkar ematen dion garapena: “Hiritartze [lurraren artifizialtze] prozesu hau heriotzarako bidea da”. Agintariek ez dute horrelakorik entzun nahi, ordea, ez hemen eta ez Txinan. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

Sergio Marinao

WALLMAPUN MAPUZUGUNEZ HITZ ETA JOLAS



AMA HIZKUNTZA DUT GAZTELANIA, BAINA EZ DA GURE HIZKUNTZA



Garabideren *Aditu* ikastaroan izan zen Sergio Marinao maputxea udazkenean. Txileko maputxe lur Wallmaputik etorria, zoli ibili zituen begiak gurean igaro zuen egun bakoitzean. Agurraren garaian, mapuzugunez bere gisara ikasitako gaztea maputheen herri eta hizkuntzaz mintzatu zitzaigun.

TESTUA | MIEL A. ELUSTONDO
ARGAZKIAK | ZALDI ERO

Sergio Marinao...

Hori da. [Euskaraz ari da]

Euskaraz badakizu pixka bat!

Bai, pixka bat.

Nola ikasi duzu?

Euskaltegian. Euskara ikaslea naiz.

Baina oso denbora gutxi duzu hemen!

Bai... [Hemendik atzerakoak, gaztelaniaz egin ditu]. Hilabete eta erdi daramat. Baina gogotik saiatuz gero, konpromisoz, gauza asko lortzen dira. Lur honetan, Euskal Herrian, nago hiru hilabeteko, eta lur honi zor diodan errespetuarengatik, ahal dudana, gutxi nahiz asko, euskaraz ikastea erabaki dut. Baita guk geurean daramagun borrokarekiko konkordantziarengatik ere. Guk ere horixe nahiko genuke han, jendeak

gure lurreko hizkuntza errespetatzea. Hemen gaudela, gure nahia erakutsi besterik ez dut egin, praktikaren bidez. Hitz hutsalek baino gehiago balio du beti praktikak.

Zu, arrotza zaituguna, aldi bateko zaituguna, euskaraz ikasten. Haatik, hemen berean bizi den askok ez dute horrelako saiorik egiten.

Badakit, bai. Hiru aldiz izan naiz Ipar Euskal Herrian, bertan luzaro bizi den jendea ezagutu dut, eta euskaraz oinarritzko elkarrizketarik egiteko gauza ez. Harrigarria egin zait.

Zuen kasuan, horrelakorik gertatzen da?

Askoz gehiago. Txilen eta Argentinan, askok ez dute bizi diren lurreko hizkuntzaren kontzientziarik. Herrietan bizi di-

ren maputxe hiztunak kontzientziatuta daude, bai, baina hirietakoek kontzientzia linguistikoa zero dute. Mapuzugun hizkuntzaren presentzia bera ere zero da hirietan.

Nondik datorkizu izena?

Sergio Marinao...

Aitaren aldeko deitura dut Marinao, maputxe izena. Amaren aldetikoa, Nahuelpan dut. Nire arbasoen izenak dituzu. Espainiarrak maputxe lurretara heldu zirenean, gure jendearen autonomia errespetatu zuten; hein batean, bederen. Aldiz, Txileko eta Argentinako nazio estatua sortu zirenean, duela berrehun bat urte, kito izan zen. Soldaduek maputxe lurra inbaditu zituzten. Lurra ez ezik, hizkuntza ere kendu ziguten. Kultur asimilazioa gauzatu zuten. Era berean, populazioaren errolda egin zenean, ma-



Sergio Marinao

PUERTO SAAVEDRA,
WALLMAPU, 1993



Maputxe lafquenchea, "itsasoko maputxea", Ozeano Barearen itsasertzean jaioa. Jatorrizko hizkuntza mapuzuguna bere gisa ikasitakoa. Mapuzugunberria, eta euskaldunberri izateko bidean. Irakasle ikasketak egiten ari da eta, aldi berean, Maputxe Hizkuntzaren Nazio Institutuko kide da. Militantea. Maputxe herriaren banderapean egin ditugu elkarrizketa nola argazkiak.

putxeak ere erroldatzera behartu zituzten. Nire birraitona Marinao zen, besterik gabe, baina kristau izena harrarazi zioten: "Hemendik atzera Manuel Marinao izango duzu izena", esan zioten. Bi anaia zituen nire birraitonak: bata Waikinao zuen izena; besteak, Ekiñenao. Nao leinukoak ziren. Errolda sistemarekin, izenak itxuraldatu zizkieten. Hala eta ere, gaur egun, maputxe izenak jarzen hasita dago jendea. Bada zerbait.

Inbasioa aipatu duzu.

Bai, Txileko eta Argentinako armaden inbasio militarra. Armada buruak heroi dira



beren estatuetan, eta guretzat, aldiz, genozida hutsak dira. Arestian esan dudanez, espainiar koroak maputxeak errespetatu zituen, hein batean. Artean kolonizazio garaian, ez zuen lortu maputxeak oinperatzerik eta, gatazka betikotu ordez, bake hitzarmena sinatzea hobetsi zuen. Lurralde mugak ere zehaztu ziren orduan.

Emantzipazio aroan, nazio estatuak sortu zirenean, eliteak izan ziren protagonista, hau da, espainiar buruzagien seme-alabak, Amerikan jaioak. Horieta-rik dituzu San Martin, Bolibar, Higgins eta beste. Maputxeek nahiago zuten espainiar koroaren mende egon, elite

haien azpian izan baino, espainiarrek maputxeen eskubideak errespetatzen baitzituzten -bake hitzarmenetan sinatutakoaren arabera, betiere-, eta eliteek, aldiz, ez. Denboraren joanarekin, nazio identitate faltsu bat asmatu zuten Txilen. Maputxeak herrialdeko nazio identitatearen oinarri direla zabaldu zuten lau haizeetara. Gezur historiko bat eraiki zuten, eta horrix eusten diote oraindik, maputxeen errealitatea ukatuz.

Zertan oinarritzen du maputxe herriak bere identitatea?

Lurra izan du oinarri, Wallmapu-a, eta

inplizituki, hizkuntza; mapuzugunari eutsi diogun artean, behintzat. Gaur egun, hizkuntzarik gabe gure identitateari eusterik ez dagoela iruditzen zait. Hizkuntzaren aldeko mugimendukoa naiz, eta kideon iritziko, oroz gain identitatea lurraldeari lotuta dator batez ere, baina baita gure pentsamendu eta kulturari ere. Hala ere, mapuzuguna oinarri hartuta.

Bizindarrak badu mapuzugunak?

Txileko alderdian bizi naiz, eta hango berri dakit nik. Duela hamar urte baino gehiago egindako inkesta soziolinguistikoko batek, hiru eskualdetan –Biobio, Araukania eta Los Rios–, bizi diren maputxe hiztunen kopuruak zehaztu zituen: 250.000 hiztun. Horiatarik guztiz gehienak adin handikoak dira. Haur eta gazteek ez dute mapuzugunez hitz egiten. Alegia, ez dago belaun arteko transmisiorik.

Bestalde, inbasioen ondorioz, maputxeek lurren %95 galdu zuten. Indigenak urritzeko programa bat izan zen tarteko, jakina, AEBetako indigenak urritzeko programaren kopia. Lurra murrizteak maputxeak pobrezia kondentatzea ekarri zuen, eta herrietatik hirietara migratzea. Hizkuntzak ere jendearekin batera egin du atzera, landa eremuetara zokoratuta geratu da, eta zoko horietan, adinekoek baino ez dute hitz egiten.

Azken erroldaren arabera, bestalde, milioi bat maputxe gara Txilen. Milioi horretarik seiehun mila, Txileko hiriburu Santiagoko metropoliaren inguruan bizi dira, Wallmaputik aparte, beraz. Diaspora bat, esateko moduan, baina Wallmapun bertan bizi diren baino askoz gehiago dira delako diaspora horretan.

Antolatuak zarete, nola edo hala. Mugimendua aipatu duzu arestian.

Maputxe Hizkuntzaren Nazio Institutua gara gu. Temucon gaude. Wallmapuko hiririk nagusia duzu Temuco, Araukania eskualdean; 200.000 biztanle ditu. Concepciónen ere ari gara. 25 lagun gara lanean. Hamabost, ekintzaile aktibo garelako esango nuke. Gainerakoak, bazkide, gutxi-asko laguntzen dutenak.

Ikasle gara, edo langile eta, aldi berean, hizkuntzaren aldeko lanari emanak bizi gara. Bestalde, Araukanian bertan, Mapuzugunaren Aldeko Mugimendua duzu, eskualdean hizkuntzaren ofizialtasuna eskatzen ari dena zuzenean. Hala ere, gure institutua da hizkuntzaren irakaskuntzaren alde lan egiten duen bakarra.

Hizkuntza indarberritzerik bago dago?

Nahia ahala omen da, eta gu, hasteko, konbentziturik gaude ahal dela. Hala eta ere, hamaika lan egin beharko lirateke. Badakigu zein diren egitekoak, baina ez dugu denei ekiteko modurik. Estatu politikak beharko lirateke, hizkuntza ikastetxeetan inplementatzea, murgiltze ereduak ezarri... Neurri horiek, ordea, oso urruti daude gure errealitatetik. Txileko Gobernuak ez du horrelakorik ulertzen. Eskola bera ere kulturabakarra da. Hegotik iparrera oso herrialde handia da Txile, zeharo ezberdina toki batzuetatik besteetara, baina eskola eredu bat bera da nagusi toki guztietan. Hezkuntza lurraldearen arabera egokitzea, beraz, gauza zaila da, eta irakaskuntza mapuzugunez bideratzea, berriz, ezinezkoa.

Gauzak horrela, irakaskuntza ez-formala lantzen dugu gure mugimenduaren bitartez. Hiru urte daramatzagu lanean, eta zenbait jendeak hizkuntza ikastea lortu dugu. Programa estatalak baino gehiago lortu dugu, estatuak A ereduaren gisako egitasmoa abiarazi baitzuen eskolan duela hogeitun urte, eta programa horrek ez du hiztun bat bera ere sortu. Guk, aldiz, mapuzugunez batere ez dakienez hiztuna hartu eta gaitasunez hitz egiteko gauza izan dadin lortu dugu.

Gauzak horrela, irakaskuntza ez-formala lantzen dugu gure mugimenduaren bitartez. Hiru urte daramatzagu lanean, eta zenbait jendeak hizkuntza ikastea lortu dugu. Programa estatalak baino gehiago lortu dugu, estatuak A ereduaren gisako egitasmoa abiarazi baitzuen eskolan duela hogeitun urte, eta programa horrek ez du hiztun bat bera ere sortu. Guk, aldiz, mapuzugunez batere ez dakienez hiztuna hartu eta gaitasunez hitz egiteko gauza izan dadin lortu dugu.

Esan duzu ikasleek hiru urtean ikasten dutela mapuzugunez hitz egiten. Ikasteko zailtasunen inguruan galde-tu nahi nizan.

Badira aldagaiak. Norberaren motibazioa, esate baterako, edo ikasteari eguneroko eskaintzen dion denbora, adibidez. Ni neu hutsetik ikasten hasi nintzen, 18 urte nituenean, familiaren baitan, gurean mapuzugun hiztun baitira gehienak. Transmisioak huts egin zuen gurean ere, eta bestalde, ez nuen mapuzugun

eskolarik jasotzeko aukerarik izan, ez hizkuntza barnetegira joateko egokierarik ere. Neure gisara ikasi nuen.

Orain ikasten hasten denak, berriz, bizpahiru urtean oinarrizko mailatik gorakoa izango du. Astean behin ematen ditugu eskolak. Minimoa duzu. Jakina, nork bere etxean ere ikasi behar izaten du, eta bereziki azpimarratu ohi dugu lan hori, etxekoa. Ez dugu bestelako baliabiderik. Irakasleak ez du kobratzen, borondatez ari da. Eta, hala ere, jendeak ikasten du, bere burua ahalduntzen du, eta mugimendua indartzen ari da.

Esan duzunez, ez zara jaiotzatiko mapuzugun hiztuna.

Ez, gaztetan ikasia dut gure hizkuntza, neure gisara. Birramona mapuzugun hiztun elebakarra nuen. Inoiz ez zuen gaztelania ikasi. Aitona-amonak, elebidunak izan nituen. Esaterako, aitona –mapuzugun hiztun elebakarra–, mi-siolarien eskola medio elebidundu zen. Aita, berriz, gaztelania elebakarra izan nuen. Gure etxean ez zen mapuzugunez



AHAL DUGU!

“Itxaropena eman dit Euskal Herriari. Duela 50 urte, euskarak gaur egun mapuzugunak bizi duen egoera bizi zuen. Biziberritzea ikusi dut, arrakasta. Gu, berriz, ‘Ahal dugu!’ esateko moduan gara. Garabideren hizkuntz lankidetzarako *Aditu* ikastaroak bihotz eman digu hona bildu garen hizkuntza guztioi: izan maia, nahua, guarania, kitxua, edo mapuzuguna”.

MAPUZUGUNA, WALLMAPUN

“Santiagoren tamainako espaziotzar handi batean komunitatea osatzea zaila da oso. Zazpi milioi biztanle omen dira, eta hizkuntz komunitaterik osatzeko modurik ez dago hainbeste milioiren artean sakabanatuta dagoen jendartean. Egitekoak hamaika dira, baina gure mugimenduaren arabera, Wallmapun bertan indartu behar dugu mapuzuguna”.

hitz egiten. Hiru senide gara, eta oraingo egunean, nik beste inork ez du mapuzugunez ikasi. Nire bi senideek hizkuntzaren alde lanean ari garenokin sinpatizatzen dute, baina bestelako lehentasunak dituzte. Maputxeon gizarteak hizkuntza berreskuratzea ez besteko lehentasun oinarrikoak ditu: pobrezia, alkoholismoa... Askok, besterik ez dakitelako hitz egiten dute mapuzuguna, edo errazago zaielako, baina hizkuntz kontzientzarik ez dute. Gaztelaniaz zuzen mintzatzeko gauza ez izan arren, nahiagoko dute gaztelaniaz nola edo hala mintzatu, mapuzugun egokian mintzatu baino.

Zeure gisara ikasi zenuen, baina nola?

Aitaren aldeko izeba-amamekin hitz eginez, hitzun aktiboak baitira. Landa eremuan bizi dira. Gaur egun, hara joan, hiru egun igaro eta ez dut mapuzugunez besterik hitz egiten. Gazteok, berriz, hirian gaudela, unibertsitatean, garraio publikoetan... mapuzugun hitz egin nahi dugu, horretarako eskubidea dugu, baina ez dago erraz.

Gaztelania zuen hizkuntzatat daukazu?

Ez. Gaztelania ez da gure hizkuntza.

Ama hizkuntza dut gaztelania, baina mapuzuguna da nire arbasoek bizi izan duten hizkuntz lurra. Eta ni arbasoei loturik nago, haiekin bat eginda. Nirea mapuzuguna da, ez gaztelania. Hizkuntz normaltasuna behar dugu, eta, kasu honetan, ez da normala hizkuntza bat berea ez duen lurraldera heldu eta han nagusitzea, eta are gutxiago, nagusitu ahal izateko, tokiko hizkuntza heriotzara kondenatzea. Horixe egin du gaztelaniak. Nik ez dut horrelakorik onartuko, kontra egingo diot horri, beti. Hasteko, neure hizkuntzan hitz eginez, kendu didaten hizkuntza ikasiz eta hitz eginez.

Zer dagokie mapuzugun hitzun ez direnei?

Hasteko, esan behar dut maputxe ez direnei ere irakasten diegula mapuzuguna. Orain artean, maputxea maputxeari zuzendu zaio, baina mapuzugunaren lurralde historikoetan hainbat jende ezberdin bizi da gaur egun, eta, beraz, alferrik esango dugu mapuzuguna maputxeona beste inorena ez dela: gure lurretan diren txiletar eta argentinarrei ere badagokie. Horixe egin dut nik hona etorri nai-

zenez, euskaraz ikasi, ahal izan dudana, errespetuarengatik, bizi naizen lurreekiko konkordantziarengatik. Gurean, ikasi nahi duen harixe irakasten diogu hizkuntza, jatorria zeinahi duela ere. Gu batzeko gaude, ez kenketarik egiteko. 250.000 hitzun garelako esaten dute, optimista izanda. Ez gaude, beraz, inor baztertzeko moduan.

Hogei urtean mapuzuguna desagertu litekeela irakurri dut han-hemen.

Arriskuan dela...

Badira ehun urte horixe esaten ari direla, mapuzuguna galtzeko zorian dagoela. Hor dago globalizazioa, eta globalizazioak ekarri duen kaltea, hizkuntza batzuek besteak desagerraraztea. Gure institutuan garbi ikusi dugu hil ala bizikoa dela egoera: edo hizkuntzaren heriotza sinatzen dugu, edo biziberritzea-ri ekiten diogu. Badakigu hizkuntzari buruz amesten ditugun gauza asko ez ditugula inoiz ikusiko, baina etorkizuneko oinarri sendoa jartzeak motibatzen gaitu, ondoko belaunaldiek geroa izan dezaten. Geuk egin behar dugu lan hori, guk beste inork ez du egingo gure orde. Edo egiten dugu, edo, orduan bai, mapuzuguna galduko da. ●



Kalean da martxoko

aizu!

- Mirari Martiarena arin-arin
- Korrika Kulturala bete-betean
- Zaldiekin ikasten
- Sormena lantzeko Sortegiak
- Georgiako mendiak eta herriak

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizu.eus



Iritziak

Krisialditik irakaspenak

Hamar urte joan dira munduko ekonomiaren krisialdi larria hasi zenetik. Eraldaketa ugari izaten ari da gure eguneroko bizitzetan. Halere, badirudi ez dugula ezer handirik ikasi geure ohiko portaerak aldatzeko. Neurri paregabean kontsumitzen jarraitzen dugu, ingurumena kutsatzen, armak ekoizten eta gerrak sustatzen. Begi-bistakoa da, gizakia aseezina da eta horrela jarraituko du planeta honetako baliabide oro amaitu arte.

Azken urte hauetako ekonomiaren bilakaerak, bestalde, garbi erakutsi digu alde ekonomikoek areagotzen jarraitu dutela iragan hamarkadetako ildoari eutsita: %1 aberatsenen eta gainontzekoen %99aren arteko aldea handitu da, Thomas Piketty ekonomialariak erakutsi digun gisan, nahiz eta %99 horren baitan ere aldeak egon.

Halaber, beste ezaugarri bat ere aipatu behar da. Izan ere, kapitalak izugarriko abiadura hartu du zentralizazio prozesu amaigabea. Ez da oraingo kontua kapitala eremu geografiko batzuetan garatu eta sustraitu izana, alabaina, egungo kapitalaren jardura nagusiak mega-hiri batzuetan kokatzen ari dira: New York, Boston, Londres, Paris edo Madril bezalako hirietan. Gehienetan, horietako eraikinak zaharkituak egoteaz gain, pertsona zaharrak bizi ziren zerbitzu publiko narriatuekin. Orain, aldiz, enpresa teknologikoak eta profesional kualifikatuak kokatzen ari dira eremu

Gaur egun hobekiago daude hiri handietako zergadunak herri txikitakoak baino; haiek zerbitzu guztiak eskura dituzten bitartean, herri txikietako biztanleek zerbitzu urriago eta garestiagoak dituzte

horietan inbertsio erraldoiei jarraituz. Beraz, hiri batzuen irudiak erabat eraldatzen ari dira: eredu berri horren arabera, erdigune horietara sarrera altuko pertsonak doaz bizitzera eta ondo ordaindutako lanpostuz gain zerbitzu oro garatzen dira, luxuzko bizimodua izan dezaten.

Bestalde, etxebizitzaren burbuilaren ondorioz, gazte asko hirietatik kanpo bizitzera joan zen. Nahiz lanpostua hirian izan eta garraioan denbora luzeago eman behar izan, etxebizitzaren prezio eskuragarriagoekin konpentsatuko zutelakoan zeuden, baita zerbitzu publiko eta pribatu eroso samarrekin ere. Baina egoera konplikatu zaie. Izan ere, hurbileko garraio publikoak, errepidekoak zein trenbidekoak, endekatu besterik ez dira egin, abiadura handikoen mesedetara-



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

ko; haurtzaindegi, osasun-etxe eta eskolentzat diru publikoak murriztu dira eta konpentsatzeko, tokiko eta erregaiaren gaineko zergak puztu dira. Ondorioz, desio zuten bizi kalitatea hondatu besterik ez zaie egin.

Haatik, gaur egun hobekiago daude hiri handietako zergadunak herri txikitakoak baino; haiek zerbitzu guztiak eskura dituzten bitartean, herri txikietako biztanleek zerbitzu urriago, eskasago eta garestiagoak dituzte. Frantziako Jaka Horiak, beste batzuen artean, zergati honen gainetik ere irten dira kalera. Laburbilduta, zerga gatazka ematen ari da hiri handi eta herrietako zergadunen artean.

Horrelako zerbait ez al da ari gertatzen Hego Euskal Herrian? Bilbok eta Gasteizek beren esku dauzkate zerbitzu gehienak. Iruñea inguruan ere zentralizazio prozesua geldiezin da. Gipuzkoa nahikoa orekatutako lurraldea zen, baina Donostiak, egunetik egunera, gehiago irensten ditu inguruko jardura ekonomiko guztiak: merkataritza, batik bat frankiziatua, zentro teknologiko txikiak –nahiz periferian kokatu–, osasun zentroak, kanpoko finantzen sukurtsalak, aseguru bulegoak, eta abar. Halaber, aipagarria da, erdigunea, hotel, pintxo taberna, kafetegi eta jolastokiz betetzen ari da, eta horrek edozein probintziatarako hiri bihurtuko gaitu. Hori guztia dela eta, gipuzkoarrok ez al dugu nahiko grinarik izango neoliberalismoaren esplotatzeko era berri honi aurre egiteko? ●

Etxerako lanak besteei jartzen



**ZIGOR
ETXEBURUA URBIZU**
EUSKARA IRAKASLEA

Aurreko batean, EAEko hizkuntza politikako sailburuordearen txio bat ikusi nuen, iragarriz 2020an egingo dela entitateetan hizkuntza ohi-turen aldaketa eragiteko *Euskaraldia* ekimena. Sailburuordea etxerako lanak besteei jartzen ari zitzaizen inguruabar horretan, euskara erabiltzeko eta gartzeko oztopoen erakusle diren hainbat gertakizun izan ziren, euskara hizkuntza ofiziala izanik, bere normalizazioa bultzatzeko arau eta plan urtetsuak dituen lurraldean.

Gogoan izango duzuen, Eneka Alvarez donostiarrak isuna jaso du, ertzainari euskaraz egiteagatik. Herritar batek azaldu zuen ere Astigarragako pediatra elebakar erdaldunak esan ziola: “*Pues si tu hija no me entiende tenemos un problema*”. Bide beretik, erizain gazte batek kontatu zuen esan ziola duela 35 urtetik Osakidetzako langile den erizaintzako gainbegiraleak: “*Si me dicen mi nombre en euskeriko, ni lo entiendo*”. Egun horietan ere, Eusko Legebiltzarrean, ez zioten utzi EH Bildu taldeari lege proposamen bat tramitatzen, euskaraz idatzita egoteagatik. Batera, duela bi urte eskas onartutako Udal Legeak agindu arren udalerrien hizkuntza egoeran eragin dezaketean planen eta egitasmoen eragin linguistikoa aztertzea, Jaurlaritzako

Lurralde Antolamenduko Sailak muzin egin zion. Tira, jarrai nezake, baina sako-nago aztertu nahi duenak irakur dezake BAT soziolinguistika aldizkariaren 109. alean berriki argitaratu dudana artikulua: *EAEko Administrazioa euskalduntzeko sistemaren balantze bat*.

Aipatutako horiek akatsak direla esango du inork; nire ustez politika baten erakusle dira. “Nahiaren eta ezinaren politika” errekurtsio adeitsua erabil nezake politika hori azaltzeko, baina Daniel Escribanoren *La diglòssia és morta. Visca la diglòssia? Sobre la ideologia lingüística del nacionalisme basc conservador* (2017) artikulua beste ikuspegi zorrotzago bat eman dit. Horren arabera, EAEko (EAJ-ren mendeko) erakundeek erabaki dute, diglosiaren fenomenoak hizkuntza ordezkapenaren fase gisa, eta, beraz, fenomeno txartzat azaldu ordez, bere egitea euskararentzat baliagarri gisa. Goitik behera ukatzen du adituak hori horrela izan daitekeenik, eta argitzen du diglosia positibo hori baliabide diskurtsibo eta sasi-zientifiko gisa baliatzen duela EAJk, zilegitzat aurkeztu edota estaltzeko euskararen berreskurapenerako benetan beharko litzatekeen politika egiteari uko egin izana. Merezki du irakurtzeko, bereziki gomen-datzen diot EAEko hizkuntza politikako sailburuordeari. ●

Mapatxeak eta mandarinak



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Nafarroako oraingo gobernuko Hezkuntza Departamentuari izena aldatu beharko liokete, eta Hezkuntza Zaila jarri. Ez dut ortografia-hutssegitea egin, ez. *Sail* da sinonimoa, baina hizki aldaketak definituko luke departamentuak jasaten duen guztia zeozar proposatzen duen bakoitzean.

Departamentuak inkesta batean ikasleei sexua markatzeko eskatzen die: neska, mutil, bertze aukera batzuk. Oraingoan ere Ana Beltran PPkoak bota du perla, ornitorrinko ere izan litezkeela Nafarroako ume eta gaztetxoak. Ez dut andrazkoa definituko, bere burua ederto

(des)kalifikatzen du-eta.

PPko beste andre “ilustre” batek, Ana Botellak, sexu bereko ezkontzak legez-tatzear zeudela, bota zuen sagar bat eta madari bat gehitzean ezin dutela inoiz sagar bi eman. Komentariorik ez.

Harrigarria zait andrakume bien konparazio naturalistikoa, sofistikatu plantak eginda, naturatik urrun, jendea mespretxatzen dutelakoan daude. Ez, bada!

Ornitorrinko edo mapatxe, madari edo mandarina, denak ederrak, barruko sena hori da-eta. Naturala delako gu garena; gu natura ere bagarelako. Horregatik, sentitzen duguna izan gintezke. ●

Kaleaz, lanaz eta kakaz



IRATI ELORRIETA
IDAZLEA



PAULA ESTÉVEZ

Lan baldintza kaskarren eremutik bereizi nahian, *kaka-lana* erabiliko dut *bullshit job* itzultzeko. Bata eta bestea, baldintza txarrak eta kaka-lana ez baitira izaten eskutik doazen lagunak.

Norbait Beppo garbitzaileaz oroitzen bada, Momoren lagun onenetako hartaz, automatikoki daki lanbidez garbitzaile delatela. Beti soinean darama lanbidea, lehen jantzian: Izenean. Eguna argitu aurreko orduetan erraztatzen ditu hiriko kaleak. Momoren lagunak, Beppo garbitzaileak, badaki erabat beharrezkoa den lana egiten duela. Antza, horixe jakin nahiko luke jende gehienak ere.

Wall Street kalea baino gehiago da; kalea baino, tropo: Metonimia, irudi, sinbolo. Occupy Wall Street mugimenduarekin oso lotuta ibili zen David Graeber-ek ekarri du kaka-lanaren gaia bere azken liburuan. Bildu dituen datuen eta inpresioen arabera gero eta jende gehiagok kaka-lantzat dauka egunean zortzi orduz egiten duen hori. Graeberren kalkuluek langileen heren batetik gorako taldea erakusten dute. Langileak berak egiten duenari zentzurik ikusten ez diotenean edo egiten duena kaltegarria iruditzen zaionean, kaka-lana egiten dela sentitzen du. Subjektiboa da kontua: egiten dutena kaltegarritzat jotzen ez

duen heinean, mafiosoak eta inbertsio funtsetako zuzendariak ez dira talde horretan sartzen.

Zuzendaritza eta administrazio postuetan, finantza sektorean eta publizitatean lan egiten dutenez ari da Graeber batez ere. Ez dira nire munduak. Idazteak ezin du kaka-lana izan, hasteko, Graeber ordainduta dauden lanez ari delako. Aldeak alde, egunaren zati handi batean egiten duzun horrek inolako zentzurik ote duen ez jakitea zein gogorra den bizi izan dut nire azalean. Azalean ez, hezurretan ere ez, beste nonbait bizi den ezinegon mota da. Beste zer hori hauts dezakeena.

Goizetan ikusten nituen kale-garbitzaileen azalean sartu nahi nuen. Halako lan bat izan. Beppo garbitzaileak egiten duen bezala, erratza pasatzen duen bitartean pentsamenduak buruan dantzan dabilzkiola. Haren aholkuari jaramon eginez, garbitzeko dagoen hurrengo kale-zatiari soilik begiratu, eta ez kalearen amaierari.

Edo Lucia Berlinen *Garbitzaileentzako eskuliburua* ipuineko emakumeak erakartzen ninduen, hil zaion senarrak utzi dion hutsunea sentitzeko, dolua egiteko, denbora hartzen duenean besteen etxeak garbitzen di-

tuen bitartean. Ezin da lan askotan halakorik egin.

Besteentzat garbitzeak emantzipaziorako bidean jarri ditu emakume asko. Etxetik atera eta beste emakume batzuekin egoteko bidea ere bada lanera joateko egiten den hori. Lucia Berlinek bere ipuinean dio ikasketak dituenarentzat ez dela erraza halako lana topatzea. Ez hori bakarrik, ikasketak ditugunok beste itxaropen batzuk izaten ditugu. Soilik etsita gaudenean iruditzen zaigu aukera ona garbitzaile lanetan hastea.

Zer egiten dugun galdetzen digutenean, zer erantzun jakin nahi dugu. Hala ez denean, Graeberren kaka-lanak irensten gaituenean, gaixotu egiten gara. Denboraren geruza gehituz, eta Sennet soziologoaren tesietaiko bat nire hitzetan emanez, gure lan-bizitzaren kontakizuna asmatu ezin dugunean, urratu egiten zaigu izaera.

Ondo ordaindutako kaka-lana ez da jomuga. Baina gizarteak behar duen zerbait egiten dutenek, ez dute zertan konbentzimendu horrekin kontentatu behar. Lanen arteko bereizketa hau subjektiboa izanagatik, badaude orientatzen laguntzen duten seinaleak: kolektibo gisa greba eginez gero, norbait jabetuko litzateke lanuzteaz? ●

Woody eta Juanmi



JOSE IGNAZIO ANSORENA
TXISTULARIA

Woody Allen Donostiara etortzeko omen da filma errodatzera. Berri on-ona dela esan du alkateak. Gure artean, baina, aspaldi izandakoa da. Orain berrogeita piku urte ikastetxe batean irakasle nengoela, jada gure artean zegoen artista: Allenen obrak irakurtzen genituen eta antzezten gazteekin, filmak ere ikusten genituen eta *zine forum* apalak antolatzen. Ez ginen bakarrak izango.

Garrantzi neurrigabea ematen zaio artista baten agerpen pertsonalari, ikusteko irrikaz direnek haren ekarpen artistikoa inondik ere ez ezagutu arren. Politikarien kasuan areago: sarri morroiek prestatutako txostena (eskuarki Wikipediatik hartuta) azken orduan irakurtzen dute datorren idazle, jotzaile, margolari edo eskultorea nor den eta zein meritu dituen ezagutzeko. Ez dira bakarrak.

Woodyri leporatu zitzaizkion sexu abusu salaketan inguruan ezin dut iritzi ziertorik eman. Interes handiak eta informazio gutxi baitaude tartean. Haatik sutsuak dira batera zein bestera hautua egiten dutenak. Alkateak ez du horretaz zipitzik esan. Ez da bakarra.

Woody Allen Donostiara etortzeko omen da filma errodatzera. Berri on-ona dela esan du alkateak.

Juan Miguel Gutiérrez, *Juanmi* edo *Guti*, euskal zinemagilea, aldiz, joan da Donostiatik eta mundutik. Inongo agintarik ez aipatuagatik, berri txarra da

Woody idazle hobea izan da zinegilea baino. *Cómo acabar de una vez por todas con la cultura* (gaztelaniaz irakurtzen genuen noski) liburua, bereziki kilikagarri iruditzen zitzaien ikasleei. Negozioaren kulturari edo kulturaren negozioari buruz ez zuen ezer aipatzen. Horrekin ez zegoen bukatu beharrik. Donostia –Martxak besterik badio ere, honetan ez da

munduan bakarra– egun negoziozaleen eskuetan dago. Hauen propagandarako on-ona da orain *Woody in person* etortzea hiria pantaila handiaz ere saltzeko.

* * *

Juan Miguel Gutiérrez, *Juanmi* edo *Guti*, euskal zinemagilea, aldiz, joan egin da Donostiatik eta mundutik. Inongo agintarik ez aipatuagatik, berri txarra da, zaplasteko krudela. Juanmik egingdako lan artistikoak gure artean daude aspalditik, baina gehiago eskaintzea zuen gogoan eta bihotz asmoetan. Ez zuen kulturarekin “amaitu” nahi, benetakoa kultura sustatu baizik.

Kultura molde zehatza zuen aukuratua: elkarren artean sortutako sare ikusezin sentigarria. Pobre break, baztertuak, ezinean, hedabide handien itzalean geratzen zirenak, ondo begiratzen eta erakusten saiatzen zen, ulertzeko, maitatzeko eta haiekin bat egiteko era egokiena zelakoan. Ez da horrela aritzen den artista bakarra. Hemen zen, *in person* gure artean, ez zuen inondik etorri behar. Baina joan egin da. Ez adiorik. ●

blogetan!
BLOG IZARREN BILA

**Bozka ezazu
blogik gustokoena**
Otsailaren 25etik
martxoaren 24a bitarte

SARIAK

Bernat Vidal artistaren garaikurra
200 euroko diru txekoa
ARGIA kolaboratzeko aukera

azkue
FUNDAZIOA

KATEGORIAK Kultura / Gizartea / Zientzia / Aisia / Politika / Teknologia

blogetan.eus

Ø200

SLOW · KAFETEGIA

BERTAKOA · GARAIKOA · EKOLOGIKOA
GEUK PRESTATUA · ERANTZUKIZUN SOZIALA



Altuna baserria · Arrillaga Txiki baserria · Basatxerri · Behieko Sabekoetxea · Biok gazta
Bodegas Lezaun · Carlos Petrina · El Alcaraván · Ertxieko · Euskal Herria Esnea
Euskal Untxia · Goi Eko Haragia · Karabeleko · Goiti okindegia · Gumendi
Larreta Esnekiak · Lur Lan · Lurrarte · Mahala · Nabarreko · Oresa gazta
Pikunieta baserria · The Loaf · Tolosako Merkatua · Urrullo agroaldea · Zalmendi

ORDUTEGIA | Astelehenetik ostiralera | KAFETEGIA 07:00-17:00 | JATETXEA 12:30-15:20
Hernani, Gipuzkoa | 943 265 022 | www.diametro200.com



BENALLA ESKANDALUA, ESTATU AFERA

ANTTON ROUGET KAZETARIAREKIN MINTZO

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Alexandre Benalla telesail bateko pertsonaia nagusia izan zitekeen. Hain da ustekabeko pertsonaiez eta gertakizunez josia afera osoa. Tamalez, ez da fikzioa, errealitatea baizik. Emmanuel Macron Frantziako presidentearen hurbileko kolaboratzailea izandakoa, Gobernuaren baitan egon daitezkeen tratu eta joko zikinen ilustrazio ezin hobea da. Iazko Maiatzaren Leheneko Parisko manifestazioan, polizia jantzirik, hainbat herritar jipoitzen grabatu zuten, eta hor hasi zen askoz harago joana den eskandalua. Mediapart komunikabideak egin lan sakonari esker ari gara guztia deskubritzen. Dena xeheki azaldu digu Antton Rouget kazetariak, ikerketa burutzen ari dela.



Esparru gorenetan gordetakoa plazaratzen zabiltzate. Presidente, oligarka zein mafioso, beldurrik gabe edozertarako prest diren horiek izendatuz. Zugan ordea, zer leku du beldurrak?


Lanjerosa izan daitezkeen pertsona batzuei buruz ari gara lanean. Demagun, Alexandre Djourhi eta Alexandre Benallaren arteko loturak argitaratu ditugu. Djourhi ongi ezagutzen dugu Mediaparten, Sarkozyren presidentetzarako kanpainaren diruztatze libiarraren bideratu zuen. Dosier horri doakionez, pertsona batzuk erailak izan dira, hilketa arraroak gertatu dira. Baina Mediaparten egoitzaren miaketa saiakeraren astea berezia izan arren, erran dezaket inkesta hau burutzen gabiltzanok ez dugula guretzat beldurrik sentitu. Kazetariok baino gehiago, iturri lanetan ari direnek dituzte arriskuak hartzen. Identifikatuak badira, horiek dituzte mehatxuak, dena galtzeko arriskua. Guk miaketa oztopatu dezakegu, iritzi publikoa mobilizatu. Prentsaurreko bat egin eta sekulako sostengua jaso dugu. Haatik, iturriak usu bakarrik dira.

Iazko Maiatzaren Leheneko manifestazioko irudi batzuk ditugu hastapenean, *Le Monde*-k uztailaren 18an plazaratuak. Bertan manifestari batzuk bortizki jotzen ageri da Benalla polizia mozorroturik.

Harrituta, zertan ari zen galdezka hasi ginen. Baina garaian ez genuen irudikatzen estatu arazo baten aitzinean ginenik. Gobernuak ukitzen zuen gertakari soil bat besterik ez zela uste genuen. Macronen aurkariak galdera ugari jarri zituzten mahai gainean, Parlamentuan ikerketa-batzordeak daude eta hasieratik ohartu ginen omerta bat zegoela Benallak Eliseoan duen tokiaz. Nola da posible polizia mozorrotzea, manifestari bat jipoitzea eta zigorrik gabe Eliseoan jarraitzea? Laster ohartu ginen harrigarriki eta nehoiz ikusi izan ez bezala babesten duela presidentea.

"Erantzule bakarra ni naiz, ni bakarrik" azalduz adierazten dio babesa Macronek.

Harreman berezia dago bien artean, ez da edozein kolaboratzaile. Benalla babesteko arrisku larriak hartzeko prest da presidentea. Aldi berean, Macronen hurbilekoak deseroso sentitu ditugu.



Ikertzen hastea erabaki zenuten.

Bai, babes hori ulertu nahian eta kolaboratzaile honen papera eta ibilbidea argitzeko asmoz abiatu ginen ikerketa lanetan.

Ezagutarazte zerrrenda luzea hastera doa.

Irailean ezagutarazi genuen Benallak armak zeuzkala. Presidentetzarako kanpaina osoan egindako selfie batzuk plazaratu genituen, bertan ageri da arma bat eskutan, horretarako eskubiderik ukan ez arren. Maiatzaren Leheneko bortizkeriei buruzko inkesta judiziala bidean denean plazaratu genuen hori. Ikerketa nahasirik zegoen, disfuntzioak zeuden, Benallaren etxeko miaketa oso gaizki iragan zen. Apartamenduan zeukan kutxa gotor bat desagertarazi zuen eta Justiziak ez zuen bilatzeko hautua egiten. Otso beltz bat zegoenaren sentsazioa puztuz zihoan astez aste gure baitan. Abenduaren 27an jakinarazi genuen Benallak segitzen zuela afera pertsonaletarako bidaiatzen, Errepublikako presidentetzak zigelaturiko pasaporte diplomatiko bati esker. Estatu buruekin biltzen segitzen du, besteak beste Afrikan, dakigun bezala frantziar diplomaziaren ihizi eremu pribatua izaten segitzen duen kontinentean.

Afera pertsonaletarako bidaiatzen du ala Gobernuarentzako?

Hortan da galdera guztia. Badakigu joan

izan dela hitzarmen batzuk izenpentzeko asmoz. Eliseoan ez den geroztik, pentsa dezakegu *consulting* arloan beregokitu dela. Baina Macronekin duen harremana argitu nahian ari gara. Badakigu loturak dituela presidentearen kolaboratzaile hurbil batzuekin, tartean Ismaël Emelien-ekin, Macronen aholkulari partikularra.

Azken afera potoloa: hitzarmen bat egin du Iskander Makhmudovekin, "Putinen soldadua" izenez ezaguna, multimiliarduna eta mafioso.

Estatuaren barnetik ere ohartarazi zigiten jarrera arraro batzuk zituela Benallak. Urtarrilaren 31n plazaratu genuen informazioa, agorrilaz geroz burutu inkesta edo ikerketa potolo baten emaitza. Oligarkarekin egindako hitzarmena berreskuratu genuen. Ekainean negoziatu zuen kontratua. Hots, Maiatzaren Leheneko bortizkeriak plazaratu aitzin eta Macronen kabineteko buruaren laguntzailea zenean. Noski, denei gorde-riko hitzarmena zen. Froga gisa, hainbat grabaketa ditugu, besteak beste Vincent Crase adiskidearekin ukan solasak –bera ere Eliseoan egondakoa, bera ere Maiatzaren Leheneko bortizkerien harira auzipetua-. Bankuek edota autoritate judizialek ez kausitzeko gisan, kontratu honen gordetzeko beharraz ari dira. Eromena da, ez dugu sekula ukan presidentearen kolaboratzaile bat, astebu-

ruro harekin zegoena, honen sekretuez jakinean izan daitekeena eta defentsa sekretuaren ahalmena zeukana, horrela errusiar oligarka batekin kontratu bat izenpetzen. Ustelkeriaren aurkako auzitegiak ikerketa ireki du plazaratzeen biharamunean. Bistan da, susmoek hor segitzen dute, hitzarmen honek beste zerbait gorde dezake.

Argiratze hauez geroztik isilik da Gobernua.

Estatuaren gailurrean dugun disfuntzio batuketa hau guztiz zorabiagarria da. Maiatzaren Lehenean gertatutakoarekin ez kanporatua izana, paso. Baina, hainbeste ezagutarazte eginda ere, oraindik Macronek barkaberatasuna galdetzea? Bihozbera izatea eskatu dio Macronek Justiziarri azaroan. Justiziaren instrumentalizazioa ikusten dugu. Gainera, Benallari emandako babesaz ez du sekula azalpenik eman nahi izan. Presidentetzak dio ez zirela kontratuaz jakinean, horrek erran nahi du uztailez geroz ez dutela zaindu zertan zebilen, ez dutela inkestarik burutu. Are harrigarria da ikusiz Errusiaren esku sartzea dela Macronek duen obsesio bakarra. Kanpainen zehar *hacking* bat pairatu zuen eta Errusiatik zetorrela uste du. Errusiaren esku sartzea arriskutsua dela errepikatzen du goiz, eguerdi eta arrats, balitekeela

errusiarrak egotea Jaka Horien gibelean, eta abar.

Mediapart hedabidearen egoitzaren miaketa saiakera duzue erantzun gisa.

Hau da ukan dugun erantzun bakarra. Inkesta publiko egiten dugu urtarrilaren 31n eta lau egun geroago, 11:15etan bi prokuradore eta hiru polizia ditugu atean, miaketa burutzera eta genituen soinu eta dokumentu guztiak errekupe-ratzera jinak.

Nola hartu duzue polizia eta prokuradoreen etorrera?

Hastapenean ez dugu ulertu, oneski, ez ginelako batere horren beha. Erredakzio bileratik ateratzen ginen, justuki solasaldi luze bat edukirik lehendakaritzaren desbideratze autoritarioez. Eta horra non irakurketaren ilustrazio ezin hobea dugula egoitzaren sarreran. Uste genuen errekesizio eskaera baterako zirela hor, plazaratu soinuen bila zetozela. Usu gertatzen zaigu eta baikorki erantzuten diegu, irakurleei emandakoa eskura utziz, ez gutxiago ez gehiago. Baina hor ez: "Gu ez gatoz horretarako, miaketa burutzera gatoz ". Erredakzio guztia batu, haien aurrean jarri eta sarrera blokeatu diegu.

Prensa askatasunaren zangopilatzea. Erabat eta ez dute disimulatzen. Bizitza

privatua kaltetzeagatik ireki dute inkesta. Noren bizitza pribatua? Jakinez gainera interes publikoa zeukaten soinuak ditugula plazaratu, frogatzen digute Benalla gezurretan ari zela Senatuaren aurrean zioelarik hitzarmen errusiar horrekin loturarik ez zuela. Salaketaren oinarrian nor den eskatu eta salaketarik ez dela erantzun digute. Hiru egun geroago deskubritzen dugu Lehen ministroak bidali gutun baten ondotik dutela iniziatiba hartu. Traketsa izateaz gain, eskandalagarria da: botereak berak Justiziarri eskatzen dio botereaz ezagutarazteak egiten ari den komunikabidea ikertzeko. Gure iturriak ezagutu nahi dituzte. Ez dute lortu, baina badakigu horretan ari direla.

Zer islatzen du Macron-Benalla aferak zure gustuko?

Maila ezberdinak daude. Batetik, gure iturrien agortzeko nahikeri argia dago, ezagutarazte bidea oztopatu nahi digute, afera behin betikoz isilarazteko. Uztailez geroz Gobernuak errepikatzen digu Benalla afera "edallontzi batean dagoen ekaitza" dela. Baina argitzen ari gara "Benalla afera" baino, "Macron-Benalla afera" dugula. Horrezgain, desastre ikaragarria da iritzi publikoan. Dossier hau lehergailu bat da Macronentzat. Alta, ez du Benallarengandik bereizi nahi eta hori zaigu ulergaitza.





Jaka Horien testuinguruan guztia.

Bi elementu ditu mugimendu honek oinarrian. Noski, klase apal zein ertaina sufrikarioan dago, bizi maila ahulduz doa eta horrek du zartatze hau ekarri. Baina bestetik, eliteen inpunitatea ezin dute gehiago jasan. Benalla afera inpunitate horren ilustrazio hobeezina dugu eta anitzek diote haserre soziala piztu duen pindarra izan daitekeela.

Ezagutzen ez dutenentzat: ez da urte luzeetan bere lekua egin duen adineko gizon zuri boteretsu bat. 27 urteko gaztea dugu, abilezia eta zalutasun handiz piramide politikoaren gailurrera heldutakoa.

Urtarrilak 31n plazaratu soinueta entzun dezakegu horretaz espantuka. Macronen kolaboratzaile den eta Benallarekin batera ikertua den Craseri esan zion: "Ohartzen al zara, 27 urterekin ari naizela boterea burdinbidetik jalgiaz-

ten! Parlamentuko bi inkesta batzordeen oinarrian nauzula!". Ez da gain-diplomatu, bizkar-zain soil bat da, presidentearen konfiantza irabazi eta bere lekua Eliseoan inposatu duena. Hastapenetik diot egoeren dimentsio ugariak eta hauen konplexutasuna ulertzeko abilezia duela, badaki nola aitzinatu, nola saihestu eta nola pasa besteren gainetik.

Zein segida ikusten diozu aferari?

Uste dut hozka bat gainditu dutela Mediaparten miaketa saiakerarekin. "Ez zarete urrunago joanen" mezua dugu pauso horretan. Komunikabide independenteen, informatzeko askatasunaren eta geroz eta autoritarioagoa den boterearen arteko tentsioa elikatzen eta larriagotzen du afera honek. Guk noski segituko dugu, dakigulako kargualdi honetako afera dela. Benalla aferak bikain irudikatzen digu Macron presidentetzaren izaera. Plazaratzeekin segitu eta tentsioa areagotuko dela iduritzen zait. Gaur egun, editorialgile *mainstream*-ek ere diote adierazpenik ez badu egiten Macron ez dela zutik aterako. Kontua da Benalla babestu izanaren oinarrian arrazoiak daudela, hots, Benallak Macronentzat trabagarriak diren informazio batzuk dituela seguraski. Presidentetza paralizatua da 27 urteko gazte honengatik, baina partikulariki, esku artean ukan ditzakeen informazioengatik.

Komunikabide independentea dugu Mediapart.

2008an sortua, garaian soilik *Canard enchainé* zegoelako erabat libre. Miliar-

dun batzuen esku diren talde bakar batzuetan kontzentraturik dira Frantziako komunikabide gehienak eta handienak. Komunikabide independente eta askeen beharra hobeezin frogatzen digu Macron-Benalla aferak. Gaia uda guztian egon zen agenda mediatikoan, baina ondotik gaiez aldatu zuten. Guk, ordea, segitu egin genuen. Horrelako aferetan askoz gehiago egon behar genuke. Parean dugu estatutu aparatua, estatu arrazoia. Kontzeptu horiek usu artifizialtzat joak dira, baina dossier horietan lan egiterakoan ohartzen gara nozio horien erran-nahiaz. Sekulako presioa dago eta aitzina segitu ahal izateko, beti errepikatzen diot ene buruari, egindakoa zinez beharrezkoa dela. Gaur egungo plazaratzeak ez dira *scoop*-ak *justu scoop*-ak ateratzeko logikan, botere macronista irudikatzeke balio diguten plazaratzeak dira.

Azkenean, gauzak mugitu egin dira: Benalla preso sartu dute, hortik gutxira askatu eta inkesta batzordeak Eliseoaren joera gogor kritikatu du.

Une berean gertaturiko bi gertakizun dira. Estatuaren gailurrean dauden disfuntzioak kritikatu ditu txostenak eta beste behin presidentea babestea izan da erantzuna, Senatuak botereen arteko bereizketa zangopilatu duela deitoratuz. Kontra-botere izan daitezkeen komunikabideak, Justizia ala Senatuak behar ez den lekuan sudurra sartzen ari dela dute erantzun gisa aldi oro. Ezin sinetsizkoa da. ●



Antton Rouget
Mediapart hedabideko
kazetaria

Iruñearen euskaltasunerainoko bidaia

**Zeruko Argiaren sorgunera itzuli ginen
otsailaren 23an. Mundua, mendea,
jendea, denak batu ziren Iruñean, ARGIAren
mendeurrena ospatzeko antolatu genuen hiri
buruzagiaren euskaltasunerainoko bidaian.**





TESTUA | GORKA BEREZIARTUA MITXELENA
ARGAZKIAK | DANI BLANCO

80 bat laguneko koadrilan goaz Arga ibaiaren inguruan, trikiti doinuen erritmoan, paseo alegeran. Damaso Intza fraide kaputxinoaren aurpegia eta “Jatorrira bidaia” hitzak dauzkan afixa gorria darama makil baten puntan Patxi Larrionek, denen aitzindari, hiri buruzagian gidari paregabe, mende bat atzera begiraturaz etorkizunerantz eramango gaituen egun-pasan. Eguraldia ere alde dugu, eguzkitsua atera da otsailaren 23a eta Iruñean eguzkia esatea asko esatea da: beste inon ez ditu Astro Nagusiak hemen bezalako kolorez bainatzen bazterrak.

Fraide kaputxinoen komentuan hasi dugu goiza, 1919an toki honetan hasi baitziren Damaso Intza eta Aita Buenabentura orduko euskaldun jendearekin konektatu nahi zuen aldizkarian buru-belarri. Hilabetekari erlijioso bat, *Zeruko Argia*: Astro Nagusiak orduan gurutzeak eta fedea zituen lagun, bestela tindatu dira euskaldunen kronikak gerortzik, baina hari fin batzuek iraun dute eta Iñaki Camino ibili da horien gainean

ekilibrista, 1986an berak eta Josu Landak Intzari egin zioten elkarrizketa birgogoratuz. Mende oso bat zeraman bizkarrean jada Migel Olasagarrek –hori zuen jaiotze-izena– 80ko hamarkadan bi gazte grabagailuz eta argazki kameraz etorri zitzaizkionean. Hilabete gutxi geratzen zitzaizkion mundu honetan. Urrikaldu ziren bi gazteak, *Zeruko Argiaren* sorreraren inguruko ez galdetu ondoren jakin nahi izan zuten ea ondo lo egiten zuen, ea ametsik egiten zuen, osasunez nola ote zebilen. Eta erantzun zien Intzak. Bere modura: “Ez zen markurtzen guk egindako galderetara. Guk galdetu eta berak galdera hori bere alderdira lerrarazten zuen beti. Zaila zen guk nahi genuen lekura eramatea”, dio Caminok –eta guk diogu jarrera hori nahi diogula eutsi ARGIAN mende baten ondoren: agenda propio bat, makurrezina, menderagabea–.

Promenatu gara, hortaz, Kaputxinoen egoitzatik abiatuta Arga –ibaiaren– inguruetan eta pitaka-pitaka joan gara biltzen Argaren –Arrotxapeko ta-

berna, kasu honetan– kanpoaldean, ailegatu ahala Arrotxan Kantuz taldeko lagunek ARGIAri “zorionak zuri” kantatzen diotela. Hamaiketakoa, orotariko solasaldi informalak eta leku honetan *pit stop* hau egitearen motiboa: bate-tik, auzoaren nortasuna metro karra-tu bakoitzean erakusten duen taberna hau inguruko euskaldunen bilgunea dela; bestetik, Ivan Gimenez kolaboretzaileak finki esplikatu duen moduan, urtetan leku honetatik pasatzen zela Plazaola tren probintziara –alegia, Gipuzkoara– bidean. 1914an jarri zen martxan orduko euskaldunek bultzia deituko zioten burdinazko suge hura. Duela bost bete zuen mendea beraz. Egina dago konexioa: 100 urteak eta ARGIAren Lasarte-Oriako egoitzara daraman bidea gurutzatzen diren lekuan gaude.

Ez denbora askorako hala ere, Nafarroako Artxibategian beste zita bat baitaukagu historiarekin. Trikiti, pandero eta festa iritsi gara eta sarreran dagoen hiriko maketaren inguruan bil-



TALDE OSPAKIZUNA. IRUÑEKO ETA EUSKAL HERRI OSOTIK ETORRITAKO ARGIAZALEEKIN ELKARTU GINEN OTSAILAREN 23AN.

du. Santi Leonéren momentua da. Aipu bat irakurri du bere hitzaldia hasteko: “Ausarta eta kementsua, baina aldi berean zakarra den bizkaitarrak eta zuberotar finak hizkuntza bera hitz egiten dute, eta bakarrik egun guttiko tartek bereizten du bata bertzearengandik; elkarrengandik hurbil dauden eskualdeetan hitz ezberdinak erabiltzen dituzte, baina hizkuntza berari dagozkionak, gauza berberak izendatzeko; ondo-ondoan dauden herriek nekez ulertzen diote elkarri, baina elkar onartzen dute nazio baten eta beraren anaiak gisa”. Nork esana da? Telesforo Monzonek? Txillardegik? Ez: Wilhelm von Humboldt jakintsuaren hitzak dira, *Die Vasken* liburutik ekarriak. 1801ean publikatutako lan horretatik gaur egun arte euskaldunak izendatzeko moduz eta, zehazki, Nafarroan euskalduntasunaren aferak izan duen garapenez hitz egin du Leonék: “Nafarroako gizartearen parte handi baten historia urruntze baten historia da: euskal ideia batetik, euskal herritik urruntze baten historia

da”. Baina orain ere, “ARGIaren eskutik independentzia astero ikusten dugu eta hemen gaude, Iruñean, XVIII. mendean Etxeberri Sarakoak eta XX. mendean Patxi Larrionek aldarrikatu bezala, euskaldunen hiri buruzagian”.

Badugula zerbait elkarren artean alegia, euskal herritar garela denok edo, zenbaitek diotenez, guztiok garela nafarrak; edo, Joxemiel Bidadorrek bere buruzak zioena koadrila osoari zabalduz, hemen elkartu garela Iruñeko gipuzkoar batzuk, bagoazela norabait, oraintxe Mañueta karrikaren amaieran –edo hasieran, nondik begiratzen zaion– itxita dagoen denda baten atarira, non zeukaten, hain zuzen, Bidador zenaren gurasoek negozio familiarra –han lan egin zuen gaztetan 2010ean hil zen intelektual euskaltzale handiak–. Haren omenez talde-argazkia egin dugu San Frantzisko plazara joan aurretik. Zain geneuzkan Estitxu Eizagirre eta Ixabel Bereziartua, ARGIAren oinarriko kanpamenduan. Alde Zaharrean egin nahi genuen ginkana denbora faltagatik

bertan behera utzita, bazkaltzera geratu behar ez zirenentzat oroigarriak banatu eta Done Saturdi kalean Diana ehiztariari eskainitako fatxadaren ondoko eskaileretan beste argazki bat egin dugu, elizgizon ar baten arrastoan hasi dugun bidaia emakume pagano baten laguntzaz amaitzeko.

Zain dugu bazkaria Zaldiko Maldiko elkartean. Gose eta egarri gara dagoeneko. Pentsa zenbateraino, haluzinazioak edukitzen ere hasi baitira batzuk: Wyoming Handia, umoregile espainiar ezaguna, hiri buruzagiko karriketan ikusi dutela diote zenbaitek. Beharrik, jana eta edana garaiz iritsi dira. Eta enpo egin ondoren, bertsoak kantatu –kategoriakoak, Sustrai Colinak idatziak, ikusi ondorengo orrialdeetan–; eta gero trikiti gehiago eta solas gehiago eta hemen kontatuko ez ditugun konspirazio batzuk ere bai. Bakoitza bere etxera abiatu denerako, argi askorik ez da geratzen zeruan –eta ARGIA ere ez da zerura itzuli; barkatu gure zorrak, Damaso–.



DANI BLANCO

Historia etxetik hasita: kaputxinoen artxiboan

PATXI LARRION GALDEANO

Ikertu ez, guk historia egin behar dugu. Arrapostu hori eman zidaten *Zeruko Argiaren* sorrera aztertu beharra zegoela proposatu nuenean, 80ko hamarkadaren akabera zen, Donostiako Mundaiz bidean ginen.

Azken hogegei urteotan etxetik ehun metro eskasera izan dut kaputxinoen komentua, hurre duela 100 urte abian jarri zuten aldizkariaren artxiboa.

Iritsi da eguna. Bost lagun sartu gara Arga ertzeko Errotazarren, neguko eguzki gorriak gozatzen du patioa. Bertan, 1986ko irailean Iñaki Camino-Josu Landa bikoteak elkarrizketatu zuen Intzako Damaso, gu boston imaginarioan iltzaturik da enkontru haren argazkia.

Urre gorria dugu helburu. Miren liburuzainak eta J. Angel artxiboko ardurdunak gidatu dute gure xerka. Damaso

ren artxiboa eskuratu eta miaketa hasi da. Oieregiko Buenabenturaren arrastorik ez, momentuz.

Bi ordu eskas eman ditugu agirien miaketan, tarteka erlojupekoan ari garela begitandu zait. Aitor dezadan, ez dugu urre gorririk kausitu, edo bai?

“Lokarri hori harrapatzera etorri ginen Josu eta biok” aitortu digu Caminok “Jatorrirra bidaia” ekitaldian. Guk Damasoren gutuneria aztertu eta 70eko hamarkadako perla hauek bildu ditugu: “Z.A. deitzen den asteroko orrek orain ere beazenez betetako beste idazki bat argitara eman du...”; “Zeruko ez den horretan...”; “Z. A. askotan nazka eman didan seme biurritzuli zaigu...”. Kritikoa zen zeruko hizki txikiz idazten zuten orduko kazetariekin, baina aldizkaria irakurtzen zuen.

Artxiboan arakatutakoen artean, Z. A.

rekin zerikusitu zuzena ez duen testuren bat. *Aritz ibarreko gaztain motak* izeneko saiakera, argitaragabea?

Beti ere, puskaz interesgarriena, *Euskeraren Adiskideak* elkartearen artxiboa iruditu zait. Baina nola iritsi da hori Damasoren artxibora? Gerrak euskalgintzara ekarri etenaren beste lekukotasun bat. Agiri horien artean “Euskaraz mintzatzen da” kartela eta horrekin batera gutun bat, merkataria animatuz kartel hori jartzera, noiz eta 30eko hamarkadaren hasieran.

Egun Nafarroako ospitale publikoetan bada formula bat eriak sailkatzeko tenorean, “*Paciente difícil de historiar*” esaldia- ren atzean euskaldun elebakar bat ezkutatzen da. Badute zer ikertu soziolinguistek.

Orduz geroztik lau aldiz bisitatu dut komentua, Historia etxetik hasi behar baita. ●

www.bertsozale.eus

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian salgai

Finalaurrekoak

ETXARRI-ARANATZ
Martxoak 9. 17:30ean, Kultur Etxean

Julio Soto Ezkurdia, Xabier Terreros Gartzia, Julen Zelaia Iriarte
Diego Rialto Barroso, Iker Gorostearzu Elzagolen eta Iban Garro Alzuri
Gai-jartzaileak: Alaitz Rekondo Ferrero

LESAKA
Martxoak 10. 17:30ean, Kultur Etxean

Joanes Illarregi Marzol, Josu Sanjarjo Altzuri, Xabat Illarregi Marzol,
Alazne Urtxalo Emergerena, Saioa Alkaiza Guallar eta Eneko Fernandez Maritzalar
Gai-jartzaileak: Fernando Anbustegi Goñi

Nafarroako Bertsolari Txapelketa
2019

Antolatzailea: Laguntzailea:

HEMEN SUSTRAIREN BERTSOAK

...eta zu kontalari

DOINUA: Jardin bat zuretzat (X.Lete)

-1-

Harresiak hesteetan
al daramatzazu?
Berlingoa hauts al da?
Tijuanakoa su?
Martxoaren 8ak
ehun al dauzkazu?
Gernika Monbar ote?
Aiete, Altsasu?
Nor aldatu da gehien,
mundua ala zu?

-2-

Joan ziren Maurizia,
Laboa, Xalbador...
ETA historia da,
eliza lur agor.
Jausi ziren dorreak,
erori zen Fagor;
Parisetik jadanik
umerik ez dator!
Zu nor zara munduan,
baina munduan nor?

-3-

Agian hartxintzar bat
botetan saltoka:
ez guztiz Bildu ta ez
aski EAJ.
Ez harra, ez emea:
biak, asko jota.
Ez homo, ez hetero...
Liga eta kopa!
Argia barroteen
artean dago ta.

-4-

Gurutzean eskegi
duzu San Balentin;
Hirutasun Santuan
bilatu lau erpin.
Nahiz eta bizitzari
zuk bertatik ekin
orain nor fidatzen da
sotanapeekin?
Aita hiltzeak kalte
ezin zizun egin.

-5-

Mozalei hozka inoiz
ez denez gaur bera
bide itsuan ere
zu beti aurrera,
etsi gabe inoren
esku-ahurrera;
euskararen begian
gorria urre da.
Ez zinen atzo jaitsi
zerutik lurrera.

-6-

Jasotakoa libre
utziz oinordetzan
bat eta bat hamaika
dira lankidetzan.
Kontraesanak altxa,
botereak etzan!
Zaildu ez ezik zaindu,
agindu ez, esan,
euriak ere behetik
gora egin dezan.

-7-

Ez zaio hitz gutxitan
luma anitz ari
'sentimentatzen' joan
den giza flysch-ari.
Altabozik gabeko
kausen zerbitzari,
bere handitasuna
eman bizitzari
eusteko zero zabor
kazetaritzari.

-8-

Gartxotez gogoratzen
ote da Itzaltzu?
Ze herri dira Sara
eta Arantzazu?
Paperezko hesterik
ba ote daukazu?
200 betetzean
esango didazu,
nor aldatu den gehien,
mundua ala zu.



Sustrai Colina,
2019ko otsailean

NORTXU NUÑEZ

GASTEIZKO BAIONA HORTZ KLINIKAREN ARDURADUNA

“Euskara hiztunak gara guztiok, bat izan ezik”

Joan den urte amaieran Lazarraga Saria jaso zutenen artean da Baiona Hertz Klinika. Odontologia zerbitzua euskaraz eskaintzen du Gasteizen Nortxu Nuñezek (Trapagaran, Bizkaia, 1976) zuzentzen duen zentroak. 2004az gero ari da Arabako hiriburuan. Lazarraga Sariaren aitzakian joan gatzazkio, eta ARGIAren mendeurrena aipatu digu berak.

TESTUA | MIEL A. ELUSTONDO
ARGAZKIA | ZALDI ERO

ARGIAk ehun urte betetzen dituela jakin duzu.

Bai, bada! Etxean laguntzaile dugunak esan zidan, Hala Bedi irratian entzun omen zuen. Zorionak zuei ere!

Non duzu euskararekiko konpromisoaren jatorria?

Txikitatik dator. Ikastolan hazia naiz, Trapagarango Itxaropena ikastolan. Gurasoak ez ditut euskaldunak, baina ikastolara zuzendu ninduten. Unibertsitatean, Leioan, ezin izan nuen Odontologia ikasketarik euskaraz egin. Harrezkero, Gasteizen, ahal dudan moduan ari naiz. Egia esan, kalean ez da euskaraz entzuten, baina Meatzaldean ere ez, nire alderdian... Hortaz, nire erronka pertsonala izan dela esango nuke. Beti egin dut euskararen alde. Bi seme ditut, euskaraz eskolatzen ari dira auzoko eskola publikoan, eta bertako euskara batzordean parte hartu ohi dut.

Zeure erronka dela esan duzu.

Bai, eta ez dakit oso seguru ere. Behar bada, Itxaropena ikastola nola sortu zen jakin nuenean piztu zitzaidan gogoak. Ikastola hura sortu zuten gurasoek ez zekiten euskaraz, baina bihotzean zera-maten euskara. Aita bertakoa dut, ama

kanpotik etorria, baina oso txikitik. Hala ere, ilusioa zuten gu euskaraz eskolatzeko.

Zein presentzia du euskarak zure hertz klinikan?

Ahalik eta presentzia handiena izan dezan saiatzen gara. Langileetatik hasita. Beti ez da erraza, ordea. Lanean hartzeko ez dugu premiazko ezaugarritzat jotzen, baina euskara hiztunak gara hemen ari garen guztiok, bat izan ezik, eta bat hori euskaltegian ari da, ulertzen duela esango nuke, baina hitz egiten ez daki oraindik. Gainerakook, denok egiten dugu euskaraz, hiru odontologo eta bost laguntzaile.

Hiru odontologook hitz egiten duzue euskaraz?

Bai.

Hara!

Euskaraz saiatzen gara, dela telefonoan, dela gure artean... Hala ere, beti ezin da, euskaraz ez dakien bat ere gerta liteke-eta tartean. Sektorean, aldiz, bilkura, kongresu, mintegi, jardunaldi eta gainerakoak, dena gaztelaniaz egiten da, eta berdin da Donostian egin, Bilbon, Gasteizen edo dena delakoan.

Zein dituzu lanean euskaraz jarduteko zailtasunak?

Hertz klinikan bertan, zailtasunik ez dudala esango nuke. Besterik da hornitzaileei dagokienez. Euskaldunak dira batzuk, erdaldunak beste batzuk. Pasaiko hornitzailearengana jo behar dugunean, adibidez, badakigu euskaraz egin ezinik ez dugula. Beste hornitzaile bat, berri, Errioxakoa dugu, baina euskalduna, Gernikakoa du saltzailea. Gainerakoan, hemengoz kanpokoekin gaztelaniaz egin behar, jakina. Banketxeekin, bestalde, berdin, batzuekin euskaraz, besteekin gaztelaniaz.

Guztion moduan, beraz.

Bai, bada. Aurreko batean kexa bat jarri nuen Akuilari aplikazioan, euskararen telefonoan. Guk, besteak beste, Osakidetzarekin egiten dugu lan, Haurren Hertzak Zaintzeko Programan. Urtero berri behar izaten dugu kontratu hori, eta gaztelaniaz jasotzen ditugu beti orri guztiak! Osakidetza da! Entitate publiko! Batarekin eta bestearekin hitz egin eta kexa idatzi nuen aplikazioan eta berriek arduratu ziren. Berehalaxe erantzun zidaten. Hemendik aurrera, baietz, ele bitan bidaliko zizkidatela orri guztiak, eta eskerrak eman zizkidaten hiz-



HELDUAK EUSKARAZ, HAURRAK GAZTELANIAZ. "KLINIKARA ETORTZEN ZAIZKIGUN NESKA-MUTIKOEI EUSKARAZ GALDETU, ETA GAZTELANIAZ ERANTZUTEN DUTE. BEHARBADA EZ DUTE ESPERO NIK EUSKARAZ EGITEA, EDO EUSKARAZ EGITEKO ZAILTASUNAK DITUZTE".

kuntza berdintasunaren alde jokatzeari. Horixe da eraginkor izatea. Arin erantzun zidaten, oso modu positiboan.

Nahikoa ote da jarrera pertsonala, konpromiso indibiduala, euskaraz aurrera egin dezan, gizartea euskaldundu dadin?

Ni, oro har, oso positiboa naiz gauza guztietan. Baina euskarari dagokionean, sentitzen dut, baina ez. Bi ume txiki ditut etxean, eta ez dago modurik. Pena handia ematen dit. Bergararik edo inguru euskaldunetik etorritako gurasoekin hitz egin, eta gauza bera. Haien umeek gaztelaniaz egiten dute. Ahizpa Mungian bizi dut, eta gauza bera. Baliteke han Gasteizen baino euskara gehiago entzutea kalean, baina ez askorik. Klinikara etortzen zaizkigun neska-mutikoei euskaraz galdetu, eta gaztelaniaz erantzuten dute. Beharbada ez dute espero nik euskaraz egitea, edo euskaraz egiteko zailtasunak dituzte. Ez dakit. Hala ere, nekagarria da niretzat.

Nekagarria, diozu.

Guztiz nekagarria. 12 urteko mutiko bati noiz jaio den galdetu, eta ez daki hilabetea euskaraz esaten, eguna zuzen esaten ez daki: "Zenbat urte dituzu?", eta "Siete",

erantzuna. "Zenbat?", "Siete". "A, ez duzu eskolan euskaraz ikasten!", "Bai, bai! Zazpi". Horrela! Ez dakit zuek zein mundutan ibiltzen zareten, baina eguna joan eta eguna etorri horrela ibiltzea, nekagarria da. Eta ume guztiek dakite euskaraz. Edo okerrago, zuk umeari euskaraz galdetu, umeak erantzun ez, eta amak ondotik gaztelaniaz: "Beharbada ez dizu ulertu, eskola hirueledun batera doa". Eta nik neure artean: "Hirueleduna! Are eta arrazoi handiagoa euskaraz jakiteko!". Aparte utziko dugu hezkuntza hirueleduna, ez baitut zera horretan sinesten, baina euskararena nekagarria da.

Horixe dugu egoera, egunerokoa.

Ez dakit erakunde publikoen ardura den, edo geurea. Ez dakit zer beste egin. Eman dezagun, euskararen aldeko jaiak egin ikastolan, jendea bilduko da, guraso eta ikasleak, baina euskaraz egin? Inork ez.

Zein leku opa diozu euskarari gizarte honetan?

Urte mordo daramagu euskararen aldeko lanean. Eusko Jaurlaritzaz aspaldi sortu zen, aspaldi ari dira ikasleak euskaraz ikasten... Jendeak euskaraz badaki, baina ez dakit zein maila duen. Baina jendeak ez du hitz egiten, gaztelaniara jotzeko

erraztasuna dugulako, ondokoak euskaraz ez dakiela uste dugulako beti, euskaraz hitz eginda molestatu egingo dugula uste dugulako... Telefonoak jotzen duela, hartu eta nik: "Baiona, bai, egun on!", eta beste aldetik: "Buenos días...". Gaztelaniaz egin behar! Horrela da gehienetan. Noizik eta behin, baten batek euskaraz erantzuten dio zure agurrari. Euskararen lekua, galdetu didazu, eta uste dut badela garaia, bazela garaia, euskara gizartean askoz presentetago egoteko, Gasteizen nahiz Trapagaranen.

Nola ikusten duzu euskara Gasteizen, oro har?

Jende gehiago dago euskaraz dakiena, hitz egiten duena baino. Hasteko, nik ez dut euskararik entzuten. Uste nuen Euskaraldia eta gero piztuko zela euskara, jakingo genuela nork egiten duen eta nork ez, baina bai zera. Entzutekotan, Gipuzkoatik eta Bizkaitik etorritako hainbat jende bizi delako Gasteizen. Horixe da nire ustea. Hemendik bertara bada farmazia bat, Agirre Lekue, eta zabaldu zutenetik ari dira euskaraz, zerbizua euskaraz ematen, beti. Auzoan, Ibaiondoko gizarte-etxean ere euskaraz ari dira, bai, baina niri hori nahitaezkoa iruditzen zait. Akabo, bada! ●

TESTIGANTZA BERRI BAT ARGITARA

PEDERASTIA

DERIOKO

SEMINARIOAN

ARGIAK beste sexu gehiegikeria kasu baten lehen eskuko testigantza dakar orriotara: frankismo garaian Derioko seminarioan ere jasan zuten pederastia adingabeek. Hamarkada askotan isilean egon den egiturazko basakeria batek Elizaren erakundeak astindu ditu. Apaizen eskuetan sexu-abusuak jasan zituzten biktimen salaketak ugaritzen ari dira. Euskal Herrian ere, tantaka, azaleratzen ari da ezkutuko orbana.

JUAN MARI ARREGI

Elizgizonen eta apaizen munduko hainbat bazterretan adingabeei egingandako sexu abusuen salaketak ugaritzen ari dira, baita Euskal Herrian ere. Salaketa horietako batzuen atzean goztainak eta kardinalak ere badaude. Aldi berean, ikusten ari gara nola ezkutatu eta babestu dituen Vatikanoko Elizako goi kargu horiek, haien jokabidearen aurrean. Azken asteetan salaketak Katalunian zentratu dira eta Montserrateko abadia izan dute epizentroa. Euskal Herrian, berriz, Deustuko Salestarren Eskolan eta Gipuzkoako diozesian daude begirada guztiak orain.

Otsailaren amaieran jadanik hogeita hamar salaketa jaso zituzten Deustuko salestarrek eta gutxienez hiru elizgizon daude inplikaturik: Jose Miguel San Mar-

tin, *Don Txemi* izenez ezagutzen dutena, Luis Rojo jadanik zendutako ikastetxeko zuzendari ohia, eta izenik ezagutzera eman ez den hirugarren bat. Alabaina, lehen zortzi salaketak artxibatu egin ditu Bilboko instrukzio-epaitegi batek, 80ko hamarkadan gertaturiko gehiegikeria horiek preskribitu egin dutelako. Biktimek gogorarazi dute preskripzioak ez duela esan nahi erasotzaileak errugabeak direnik eta “irmotasun, gardentasun eta umiltasun” gehiago eskatu diote Elizari.

Ikusten ari garenekin, antzeman dezakegu hau guztia izeberg beldurgarri baten zati txiki bat besterik ez dela. Izeberg hori pixkanaka ari da azaleratzen sexu-abusuen biktima izan diren horien salaketari esker. Badira hamarkada batzuk gehiegikeria horiek gertatu zirela.



Apaizak edo elizgizonak izan ziren erasotzaile, euren boterea aprobetxatuz; eta haur gazteak biktima, botere-harremnan horrek azpiratuta. Eliz-agintariak berriz, Vatikanoa buru zutela, ezkutatu egin zuten hori guztia.

Elizaren eta bere erakunde erlijio-soen barruan izandako sexu-gehiegikerien egoera orokor honek erreakzio handia sortu du herritarren artean, eta besteak beste, Espainiako Gobernuak berak Elizako hierarkiari eskatu dizkio pederastiaren inguruan egin dituen ikerketa guztien berri eman diezaiola, helburu zehatz batekin: “Onartezina da oraindik halako gertaerak ezkutatzeko ibiltzea, argi gehiago eman behar zaie”.

Testuinguru horretan, sexu-gehiegikeria gehiagoren berri emango dugu segidako orrialdeetan: 1954 eta 1960 artean Derioko diozesi seminarioan zeuden adingabeei egindakoak. Abadegaiak formatzeaz arduratzen zirenek egin zizkieten abusuak 12 eta 15 urteko nerabeei. Lerro hauek sinatzen dituenaren testigantza pertsonalaz gain, informazio kolektiboa ere bada karkigu, Derioko “zuzendari espiritual” baten gehiegikeriak jasotzen dituen inkesta ofizial baten bidez. Seminario bereko beste arduradun batengan ere badaude antzeko susmoak.

AITA SANTUA, HAUTAZKO ZELIBATOAREN KONTRA

Eliza barruko eskandalu hau lotsagarria da, baina ez dirudi etorkizunean konpontzeko bide eraginkorrik aurkituko denik. Eliza mugatu da gertaera horientatik bere nahigabea azaltzera, zenbait kasutan barkamena eskatu du, eta ia beti bere jokabidea izan da abusuak estaltzea, “kasu isolatuek” ez dezaitez zikindu.

Eliza Katolikoko 190 ordezkariarekin pederastiaren inguruan Erroman egin-

dako gailurrean, Francisco Aita Santuak abusuez eta orokorrean sexu-moralaz esandakoetatik ondoriozta dezakegu ez duela funtsezko eta egiturazko aldaketarik egingo, egoera mingarri eta odoltsu horiek ez daitezen errepikatu. Vatikanok “hausnarketarako puntuak” proposatu ditu, baina neurri eta erabaki zehatzik hartu gabe, eta horrek atsekabea sorrarazi du gailur horren emaitzekin itxaropena zuten biktimengan. Montserrateko abadian sexu-abusuak jasan zituen Miguel Hurtadoren iritziz Franciscok ez ditu beren proposamenak aintzat hartu: “Arduradunak justiziaren esku uztea, dokumentuak epaileei ematea –eta ez gotzain batek esan zuen moduan suntsitzea–, sexu abusatzaileek lanpostua galtzea, biktimei kalte-ordain ekonomikoa ematea...”.

Sexu-abusuak gertutik ezagutzen dituzten adituen beste proposamen bat izan da hautazko zelibatoa –ordena erlijiosoetako kideek derrigorrez bizi behar dute ezkonge–. Baina Aita Santuak jadanik esan du bide horren aurka egingo duela. Franciscok badaki, eta kontziente da, gotzainek ez dakitela zer egin: “Programa orokorrak behar dira, gotzainen konferentzia guztietara iritsiko diren protokolo argiak, hori da funtsezkoena”, diote.

Baina badirudi Aita Santua bera dela orban horren aurrean zer egin ez dakiena. Konponbideetako bat hautazko zelibatoa izan daitekeela proposatzen dutenei, argentinarrak honela erantzun die: “San Pablo VI.aren esaldi bat dator kit burura, ‘zelibatoaren legea aldatu baino, nahiago dut bizia eman’. Esaldi ausarta da, are gehiago halako momentu delikatuak. Zelibatoa Elizaren dohaina dela uste dut. Gainera, ni ez nago ados hautazko zelibatoarekin, ez. Zerbait pertsonala da, ez dut egingo. Ez naiz gai ikusten halako erabakiarekin nire burua Jainkoaren aurrean jartzeko”.

Derioko eraikinak Seminario Handia (ezkerrean) eta Seminario Txikia (eskuinean) biltzen zituen. Azken honetan gertatu ziren sexu-abusuetako batzuk: eskuineko kantoi biribilduan, hirugarren soilaruan zuen bulegoa “zuzendari espiritualak”.



DERIOKO BIKTIMAK

Higiene genitala, abusatzeko aitzakia

1 953an sartu nintzen Derioko seminarioan, Bizkaian. Beste 135 lagunekin inauguratu genuen eraikina eta horietatik 30 inguruk amaitu genituen apaiz ordenatzeko behar diren hamahiru urteak. Lehen sei urteetan Humanitateak egin genituen, egungo batxilerraren oso antzeko zerbait. Garai haietan 13 edo 15 urteko nerabeak ginen, eta oso gogoan daukat denok, edo ia denok, isildu genuen zerbait. Urteak igarota horretaz hitz egin izan dugu, denoi, edo ia denoi gertatu zitzaigulako. XX. mendeko 50eko hamarkadaz ari gara. Orduan ez zegoen sexu-abusuen aurrean gaur daukagun kontzientziarik.

Manuel Estomba (1916-1982) zen lehen urte haietan, Derioko seminarioko zuzendari espirituala -horrela deitzen genion gure kontzientzien eta espiritualetatearen "zaintzaileari"-, duela urte batzuk hila. Orain pederasta gisa hartuko genuke. Aparatu genitalaren higie beharraren aitzakian, eskua sartzen zigun zakila nola garbitu behar genuen azaltzeko. Horretarako, bere egoitzako aulkiaren ezkerraldean ezartzen gintuen ondo-ondoan, prakak askatu, zakila aterarazi eta ukitu egiten zigun garbitasun kontuak argudiatuz. Aldi berean, besarkatu egiten gintuen ezker besoaz, eta bere masaila gurearen kontra estutzen zuen... Nola ez, aurretik, hori guztia inori ez kontatzeko esaten zigun! Eta egia esan, urte askotan ezkutatu egin genuen, nork bere modura. Denborak aurrera egin ahala ordea, batzuk eta besteok gertatu zitzaiguna argitzen joan ginen. Jabetu ginen zuzendari espiritual hark "sexu higie" nola egin behar zen azaltzeko modu bera erabiltzen zuela denok.

Urteak igarota, zuzendari espiritual horrek Derioko seminarioa utzi zuen eta misiolari gisa ibili zen Ekuador eta Venezuelako misio diozesiarretan. Sekula ez genuen zehazki jakin, baina bai imajinatu, gero ezagutzera eman zena: Deriotik Ekuadorrera aldatu zuten, zu-

zendari espiritual karguan zela nerabe apaizgaiei egindako sexu-abusuengatik. Bere apaiz bizitza Urkiolako santutegian amaitu zuen, Amerikako eta Afrikako misio diozesiarretan izandakoak hara egokitzen baitziren. Elizako agintariak ezkutatu eta isildu egin zuten, logikoena litzatekeenean ardura pastoral orotatik apartatzea. Derion gehiegikeriak egin bazituen, Ekuadorren eta Venezuelaren gauza bera egin zezakeen.

“

**"HORRETARAKO,
BERE EGOITZAKO
AULKIAREN
EZKERRALDEAN
EZARTZEN GINTUEN
ONDO-ONDOAN,
PRAKAK ASKATU,
ZAKILA ATERARAZI ETA
UKITU EGITEN ZIGUN
GARBITASUN KONTUAK
ARGUDIATUZ"**

Gogoratzen dut gure artean beste hainbat kontu ere aipatzen genituela, zenbait "nagusik" ikaskide zehatz batzuekin izan zuten jokabidearen harira -gutxi ziren, baina politenak edo familia dirudunetakoak izateagatik "hautatzen" zituzten-; Don Santiago Duo izenekoa zen nagusi haietako bat. Seguruena hor ere sexu-gehiegikeriak gertatu ziren, eta bestalde, ez daukat zalantzarik esateko nagusien eta seminaristen artean harreman homosexualak izan zituztela; aldiz,

halako harreman motak seminaristen artean gertatzen zirenean haien kontra tematzen ziren nagusiak, behintzat ofizialki. Bi abadegai elkarrekin paseatzen ikusten bazituzten, edo bagintuzten, "amistades particulares" izatea egozten ziguten eta zelatan egoten ziren.

Hain zuzen, Santiago Duo zen gehien zelatatzen gintuena, paseatzen ikusten gintuenean "eskuak poltsikotik kanpora!" esaten zigun; pentsatzen genuen hori esaten zigula masturbatzea eragozteko. "Nagusi" deitzen genien diziplina-rako prefektuak eta barneko irakasleak ziren apaizei; ikasleokin egunero bizi ziren hauek.

Haietako askok erlazio pertsonala zuten gure ikaskide batzuekin, euren bulegoan lehentasunezko tratua izaten zuten eta, bazen bere motoa edo autoa erabiltzen zuenik ere, ikaslea "ibilaldi" batera eramateko, besteok seminarioko diziplina jarraitzen genuen bitartean. Arauen arabera, ezin genuen handik atera udako eta gabonetako oporretan izan ezik.

INKESTA OFIZIAL BATEK HISTORIA HAU FROGATU DU

Derioko seminarioko sexu-gehiegikeriez hemen kontatu dudanak, ez luke halako baliorik izango testigantza bakarra izango balitz. Nire testigantza. Irakurleak egia ote den galde dezake. Baina azaldu dudanak bat egiten du inkesta profesional eta ofizial batekin, eta hori beste kontu bat da.

Astintze 53-70 elkartea Derioko seminarioko abadegai eta irakasleek sortu zuten. Izen horrek lotura du Bilbo-Lezamako trenbide geralekuak zuenarekin; seminario parean zegoen eta eskuarki erabiltzen genuen hara eta hona ibiltzeko.

Elkarte horren enkarguz inkesta egin zuen 2009an Javier Elzo soziologoak, seminariotik igaro zirenen artean -13 urteko ikasketak amaitu eta apaiz ordenatuak izan ala ez-. Derioko egoaldiko ikuspegi pertsonala jasotzea



Manuel Estomba

Derioko apaizgaitegiko zuzendari espiritual, euskaltzale eta idazle oparoa ere izan zen. ARGIAk azaleratutako testigantza arabera, bere bulegoan sexu-gehiegikeriak egin zizkien adingabeei.

zuten helburu galderek. Denera 199 pertsonak erantzun zuten (ikusi *Historia del Seminario de Derio-Bilbao. En el recuerdo de sus protagonistas, 1953-1970*. 610-611 orr.).

Nik inkesta jaso nuen, baina ez nuen parte hartu, eta uste dut horrek garrantzia handiagoa ematen diola orriotan egiten ari naizenari: jasan nituen sexu-gehiegikeriak salatzea.

Azterketak badu atal bat adingabeei egindako abusuen inguruko erreferentzia guztiak jasotzen dituen, eta horri buruz egindako galderen erantzunak transkribatuta daude. Hauek dira:

"SEMINARIOKO APAIZ BATEK PRAKAK JAITSARAZI ZIZKIDAN HAINBAT ALDIZ, ZAKILA NOLA GARBITU BEHAR DEN AZALTZEKO AITZAKIAN. BADAKIT BESTE IKASKIDE BATZUEKIN ERE EGITEN ZUELA, GERORA GURE ARTEAN HITZ EGIN DUGULAKO. NIK 12 ETA 14 URTE ARTEAN NITUEN"
Sekularizatua, egun 67-70 urte inguru ditu

"AITA ESPIRITUAL BATEK EGINDAKO SEXU-GEHIEGIERIEK ASKI MARKATU NINDUTEN"
Jardunean den apaiza, gaur egun 70 urte baino gehiago ditu

"AITA ESPIRITUALA GIZAGALDU BAT ZEN ETA GU HAUR INUZENTEA"
Jardunean den apaiza, 63-66 urte

"NIK EZ NUEN HALAKORIK EZAGUTU, BAINA SEMINARIO TXIKITIK ZETOZEN BATZUEI ENTZUN NIEN APAIZ BATEK 'UKITUAK' EGITEN ZIZKIELA"
Seminarioa latindarretan utzi zuen apaizgaia, 67-70 urte dauzka

"'AITA ESPIRITUAL' BATEK ZELO (EDO ZERU?) HANDIZ KALKULATZEN ZUEN ESKUEKIN HANKAK GURUTZATZEN GENITUENEAN AGERTZEN ZENAREN 'LIZUNKERIA ANGELUA'; ETA SEXU HIGIENERAKO AHOLKU PRAKTIKOAK EMATEN ZITUEN, FROGA ERREALAK EGINEZ"
Seminarioa filosofia ikasketetan utzi zuen apaizgaia, 67-70 urte dauzka

"HILABETEAN BEHIN BERE BULEGORA DEITZEN NINDUEN ETA ZAKILA ATERATZEKO ESKATZEN ZIDAN, SEGIDAN BEHATZEKIN UKITZEN ZUEN, HOLA ETA HALA EDUKI BEHAR NUELA ESANEZ. ZER ESAN NAHI ZUEN HORREK? GAUR EGUN ZALANTZAK DAUZKAT"
Seminarioa latindarretan utzi zuen apaizgaia, 67-70 urte dauzka


"IRAKASLEEN ETA SEMINARISTEN ARTEAN HARREMANAK ZITUZTEN. NI HORIEN BIKTIMA IZAN NINTZEN"
Seminarioa latindarretan utzi zuen apaizgaia, 63-66 urte dauzka

Inkesta egin zuen Elzo irakasleak, seminarioan izandako sexu-gehiegikerien atala gisa honetan amaitzen du: "Irakurleak baditu nahikoa elementu bere ondorioak ateratzeko, nik bezala. Garbi dago "ukituak" egon zirela -azaltzeko zailak direnak-, eta zenbait erantzunen arabera, badaude euren burua sexu-gehiegikerien biktimatzat dutenak. Pertsona zehatz bat aipatzen dute: zuzendari espirituala".

Deigarria da inkestaren arduradunek ez esatea zuzendari espirituala zein zen, galdekatu askok abusatuta egiten zuela aitortu zuten arren. Ez daki-gu galderak erantzun zituztenek haren izena aipatu ote zuten -pentsatzen dut baietz-, edo azterketaren egileek ez argitaratzea erabaki ote zuten; Elizak mundu osoan mantendu du halako kontuak ezkutatzeko praktika. Testigantza honetan idatzita utzi dut: Derioko Seminarioko Ikasketa latindarretako zuzendari espirituala Manuel Estomba izan zen, jadanik hila. ●



Tantaz tanta, emariak



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Izaba (Nafarroa), 1921. Josefa Molera kimikaria jaio zen. Espainiako lehenengo gas kromatografoaren sortzaileetako bat izan zen, Kimika Fisikoko Institutuan Zinetokimikako saila sortu zuen eta ikerketa lerro berriak ere jorratu zituen. Eta hori guztia lortzeko mila oztopo gainditu zituen; edo hobe esanda, oztopo bera gainditu behar izan zuen behin eta berriro: emakume izatea.

Kimikako ikasketak 1942an burutu zituen Madrilgo Unibertsitate Zentralean. Kimika Teknikoko Katedran irakasle laguntzaile lanetan hasi zen orduan, baina soldatarik gabe. Garai hartan ez zegoen emakume ikertzaile arlo horretan eta, hain zuzen, horixe erabili zuten aitzakia gisa Molerari tesia egiteko aukerarik ez emateko. Kimika Fisikoko Institutuaren zuzendaria aldatu zutenean zabaldu zitzaion aukera hori. Bertako laborategietan lan egiten hasi zen, baina jasotzen zuen ordainsaria ere ez zen nahikoa bizitzeko; urte horietan guztietan aparteko klaseak eman zituen bizibidea lortzeko.

Azkenean, 1948an eskuratu zuen doktore titulua, Aparteko Saria jasota gainera. Handik bi urtera Oxfordera joateko aukera eskaini zioten eta gerora Kimikako Nobel Saria jasoko zuen Cyril Norman Hinshelwoodek zuzentzen zuen laborategian hasi zen lanean. Kimikari ingelesak ez zion harrera onik egin izabarrari, emakumea baitzen. Eta, berriro ere,

Molerak gogor lan eginez lortu zuen aurreiritziak baztertzea. 1986 arte jarraitu zuen lanean eta 2011n hil zen.

Kalaka Komunikazioak argitaratu duen *Emariak* liburuko 10 protagonistetako bat da Molera. Historian emakumeek egindako ekarpenak bildu dituzte bertan Ilazki Gainza eta Nerea Uriak. Kimikan nabarmendu den emakume bat aukeratzekotan, gehienoi Marie Curieren izena datorkigu gogora. Hain zuzen, liburuan nahi adina emakume sartzeko tarterik ez eta horrelakoak saihestu dituzte. Irakurleak bilduman ez ditu topatuko Simone de Beauvoir, Angela Davis edo Frida Kahlo, emakume ezezagunagoei bide ematea

lehenetsi baitute. Gainera, eremu zabala hartu dute kronologikoki –Antzinarotik hasita, Hipatia Alexandriakoarekin– nahiz geografikoki –Junko Tabei alpinista japoniarra, Miriam Makeba kantari hegoafrikarra, Wangari Maathai ingurumenaren aldeko ekintzaile kenyarra...–.

Itxuraz txikiak diren baina egunero koan aldaketa handiak eragin dituzten objektuen asmatzaileek ere badute tokia bilduman: Melitta Bentz alemaniarrrak kafe filtroa asmatu zuen 1908an, eta 1937an Leona W. Chalmers estatubatuarra izan zen kopa menstrualua patentatzen eta merkaturatzen lehena. Emari oparoenak tanta txikiz osatuta baitaude. ●



KALAKA

Argiaren garrantzia

Duela 500 urte, 1519an, Michelangelo Buonarrotik (1475-1564) Florentziako San Lorentzo basilikan Sakristia Berria eraikitzeko proiektua abiatu zuen, Medicitarren hilobiak bertan hartzeko. Arkitektura eta eskulturaren maisulan hori egiteko, zehaztasun handiz aztertu zuen egoitza berriaren argiztapen naturala. Baina XVIII. mendearen ha-

sieran, sakristiaren alboan Printzeen Kapera eraiki zutenean, Michelangeloren argi efektuak itzali egin ziren.

Orain, teknologia berriak lagun, argiztapen sistema berria jarri dute aretoan jatorrizko argi baldintzak lortzeko eta, hala, argazkiko eskultura, adibidez, Michelangelok nahi bezala ikus daiteke. ●



ANDREA JEMOLO / MUSEI DEL BARGELLO

BANBUTZA, OHOLTZA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

ASIAN BERROGEITIK GORA SOLAIRUKO ETXE-ORRATZAK EGITEKO BANBUZKO ALDAMIOAK ERAIKITZEN DIRA. ALTZAIRUZKO ALDAMIOAK ZURRUNEGIAK DIRA, ETA AUSTEN ERRAZAK. BANBUAK, BERE MALGUTASUNARI ESKER, ALDE EDERREAN EUSTEN DIE HAIZETE ETA LURRIKAREN ERASOEI. ARGAZKIA: ARCUS-GLOBAL.COM.

Joan zen otsaila. Agur neguari eta ongi etorri udalehenari, bedatseari edo belartzeari. Polita belartzea, baina hurrengo baterako utziko diot bide horri. Egurretik tira nahi dut oraindik...

Lehengo batean Arantzazuko fatxada tzarraren istorioa zekarren *Berria*-k eta aspaldi ikusi gabeko imaginak berritu. Bi argazki: baga, Oteizaren apostoluak bide bazterrean botata egon zirenekoa, eta biga, landutako harri mokor horiek fatxadan ezartzeko lanak.

Oteizaren hutsunearen zulo beltzean ez naiz sartuko, mutu geratu beharko nuke eta. Aldamenekoak eman zidan atentzioa: aldamioak. Zurezko aldamia zen, ohola oholari iltzatuz jasotako aldamia. Horrexegatik esango zaio oholtza. Tokitan daude gaur egun ikusten ditugun kleri-klaka batean kendu eta jartzeko metalezko egitura horiek. Argazkian ez nuen zura ezagutzen eta aurreneko

gauza aitona Jesus Mariri galdetzea: zer egurrekin egiten ziren garai bateko aldamiaok? Ez alferrik zerraria izana da.

Bere iritziz, Arantzazukoa bezalako aldamia gutxi egin izan da hemen. Gehienetan etxearen hormak altxa eta ondoren, barrukoa solairuz solairu osatzeko astoen gaineko aldamia mugikorrek erabili izan dira. Kanpoko horman konponentaren bat edo egin behar izanez gero, teilatu hegaletik soka bidez gora eta behera eragiten zitzairen aldamia zintzilikarioak erabiltzen ziren. Astoen gainekoak bezala, gorabeherako horietan erabiltzen ziren oholak insignis pinuzkoak omen ziren (*Pinus radiata*); zazpikoak, zazpi zentimetroko lodierakoak, alegia. Nire ustez, fatxadatiko oholtza handi bakan horiek ere pinuzkoak izango dira.

Asia aldean aldamiaok beste landare batekin egiteko ohitura handia da. Gaur egun ere berrogeitik gora solai-

ruko etxe-orratzak egiteko banbuzko aldamiaok eraikitzen dira. Ikaragarriko artea dute horretan aritzen diren zurginek; ikasketa bereziak egin behar dituzte, eta lodi kobratzen omen dute. Diotenez, altzairuzko aldamiaok zurruneziak dira, eta austen errazak. Txinatar atso-titz batek hala dio: biguina delako, mingainak ematen du, hortza zurruna da eta hautsi egiten da. Banbuak, bere malgutasunari esker, alde ederrean eusten omen dio haizete baten edo lurrikara baten erasoari. Bestalde, eraikuntzari eman nahi zaion formara erraz egokitzen da, eta denbora erdian eraikitzen dute. Arazo nagusia iraupena da: hiru bat urte.

Geurean ere pardatarako edo makiletarako mozten diren kanaberak (*Arundo donax*) eta banbuek (*Phyllostachys spp*) antzeko iraupena dute. Hori bai, otsaileko ilgoran mozten dira. Joan berri dena bezala, etorriko da bai beste otsailik... ●

EHKOLEKTIBOIA

MUGIMENDU AGROEKOLOGIKOARI INDARRA EMATEKO KANPAINA ABIAN



GARAZI
ZABALETA

Euskal Herri osoa eremutat duen baserritar agroekologikoen elkargunea da EHKolektiboa, bertako laborantza ekologiko eta herrikoia bultzatzeko lanean ari dena. Muga administratiboen gainetik dihardute, Zuberoatik Bizkaiarainoko nekazari eta abeltzainak elkarlanean jarritz. Jardunean muga horiek gainditu badituzte ere, alor ekonomikoan zailtasunak dituztela adierazi du Jokin Zaldunbide elkarteko kideak: “Administratiboki hiru gunetan gaude banatuak, eta Euskal Herriko egitura kontzebitzen ez duenak oztopoak besterik ez dizkigu jartzen”.

AUTONOMIA EKONOMIKOAREN BILA

Aipatu arrazoiagatik diru laguntzak eskuratzeko dituzten zailtasunak medio, ondorio honetara iritsi ziren: talde eragilearen ondoan “talde ekonomiko” ba-

ten beharra bazutela, diru iturrietan autonomia irabazteko. Hortik atera da %100 kanpainaren ideia. Ehun pertsonen ehun euro ematearekin dauka kanpainaren izenburuak lotura, baina ez horrekin bakarrik: “Euskal Herri mailako egitura batean ez gara ehun soilik, beraz %100 horrek beste esanahi bat du: anitzek ematen ahal dugula pixka bat, ehun baino askoz gehiago izaten ahal gara”.

Kanpainarekin jendarte zabalarengana iritsi nahi dute. “Agroekologiak fokua ez du laborantzan soilik, sare anitz ditu, burujabetza arlo askotan bultzatu nahi duen proiektu politikoa baita”. Beraz, baserritar nahiz kaletar, EHKolektiboa bezalako elkarten lanaren garrantziaz ohartzen den edonori egin nahi diote ekarpen ekonomikoa egiteko deia.

NOLA BATU?

Diru ekarpenak egiteko bi kontu korronte ireki dituzte kolektiboko kideek, bata Hego Euskal Herriko jendearentzat eta bestea Ipar Euskal Herrikoarentzat. Interneten EHKolektiboaren webgunean eskuragarri daude ekarpenak egiteko zenbakiok.

Lortzen den diruarekin zer? Bada, orain arte martxan zituzten ekimenak indar eta babes handiagoarekin mantendu ahalko dituztela diote. “Jadanik sortuak eta martxan dauden lantaldeei indarra ematea ahalbidetuko du: baratzezainen lantaldea, abeltzainena, frutazainena... horiek dinamizatzen jarraituko dugu”. Bestela esanda, Euskal Herriko mugimendu agroekologikoari indarra ematen segituko dute, taldeko teknikariari ere baldintza duinak emanez. ●

Basherri

GIPUZKOAKO KONTSUMO TALDE ETA KOOPERATIBAK

sarea

info@basherrisarea.eus · www.basherrisarea.eus

HEMENGOA ETA EKOLOGIKOA, GOZATU GUREAZ!



ASTEKO PORTADA HAUTATUA

1963ko martxoaren 31



KOLDO IZAGIRRE

Luze, sobera luze leihoak itxia. Munduaren hitza entzun behar zuen Elizak, haize garbia hartu behar zuen usantzaren hautsak harrotzeko. Kontzilio bat antolatu eta Entziklika berritzaile bat atera zuen Jon XXIII.ak.

Giro aurrerazale horretan koka genezake *Zeruko Argiaren* abiatze modernoa. Hiru urteko isilaldiaren ondoren, asmo handiko dator 1963an Lekarozko komentua utzita Donostiako Okendo kalera, kaputxinoek elizaren albo batean duten aretoa erredakzio bihurtzeko. Hilerokoa izatetik astero azaltzeko konpromisora hartu du, apaingarriko koloreak baztertu eta prentsaren zuri-beltza hautatu du, irudiak argazkiz eginak dira eta umore kritika bideratzeko nahi ditu marrazkiak: euskara informazioaren lehian sartu zaigu gaztelaniaren galernaren erdian. Luze gabe bete beharko ditu hitzez hasierako portada airosoak, badago zer idatzia.

Basarri, Karlos Santamaria, Jon Etxaide eta Jose de Artech bezalako sinadura ezagunei publiko gaztea bilduko zuten kolaboratzaile berriak erantsiko zizkien aldizkariak: Xabier Tolaretxipi, Rikardo Arregi, Joxepe Azurmendi, Ramon Saizarbitoria... Apurka, sekzioen eta artikuluen bitartez, *Zeruko Argia* Euskal Herriko errealitate erakusten eta euskaldunon iritzi publikoa formatzen hasiko zen, "Unamuno ala Loroño, nor ote da lenago?". Inork ez daukala tontoa izateko obligaziorik, Azurmendik. "Loroñoek Unamunorekin ez dauka zerikusirik? Or dago gakoa!". Ez ote dauka meriturik geografia ezagutzeke *Vuelta a España* bat irabazteak?

Epelkeriaren lapikoa ez beste zerbait izan behar zuen *Zeruko Argia*-k, Juan San Martinen iritzi. Eta inoizko agerkaririk laikoena bilakatu zen Kaietano Ezeiza kaputxinoaren gidaritzapean. ●

ARGIAK 100 URTE

ZERUKO ARGIA

Iragana betaurreko moreen begietan



Zeruko Argia-k 1960an "Aizan'No" atala abiatu zuen. Lore delako batek sinatzen zuen eta noka idatzia zen.

MIREN OSA GALDONA

Martxoaren 8ko greba feminista ate joka dugun honetan, iraganera begiratzea ariketa interesgarria bezain etsigarria izan daiteke: nondik gatozen gogorazten laguntzen duelako batetik, egun harrotasun gutxiarekin erakutsiko genituzkeen pasadizoak azaleratzen zaizkigulako bestetik.

Lerroot osatzeko maiz egin ohi dugun bezala, gaurkoan ere ARGIAren artxibo historikoa miatzen aritu gara. Betaurreko moreak tinko jarrri eta lehen artikulua "feministaren" bila hasi gara. Aurkitu dugun ala ez amaieran jakingo duzue, prozesuan aurkitutako bitxikeriek aipamen berezia merezi baitute.

Nork sinetsi dezake Kennedytarren *Zeruko Argiaren* azalean atera zirenik 1963an? Ba halaxe da, eta argazki hori da emakume bat azalean ateratzen den adibide bakantakoa 60ko hamarkadan eta 70eko hamarkadaren hasieran. Kennedytarren senide jaioberriaren bataioa da albistea, eliza baten atarian, senide guztiak haurraren inguruan agertzen direla. Hau da, ama izateagatik eman zioten protagonismoa Pat Kennedyri.

Emakumearen izenik aipatu ere egiten ez zuten argazkirik ere bada. Hala dio 1970eko urriaren 18ko ar-

gazki oinak: "Pompidou, bere emaztea eta Podgorny, Frantziako Lehendakaria Moskura eldu zan garaiean. Pompidou jaunak ba du zer jorra turrik Rusia aldean!".

Dena ez da, baina, hain ezkorra. 1960an hasi zen *Zeruko Argia* "Aizan'No" atala argitaratzen. Lore sinadurapean idazten zuena modaz aritzen zen gehienbat, eta ukitu berezia zuen idazteko orduan: emakumezko irakurleei noka zuzentzen zitzairen, aholkuak emateko eta ideien bat nabarmentzeko. 1970ean Lurdes Iriondo *Zeruko Argiaren* azalean ageri da Ez Dok Amairuko gainontzeko kideekin, Donostian emandako kontzertu batean. Musikari gisa izendatzen du garai hartan hilabetekaria zen *Zeruko Argiak*, eta emakume soil baina, taldeko ikur bezala adierazia da.

70eko hamarkada erdialdean-bukaeran hartuko zuten erredakzioaren martxa Elixabete Garmendia, Pilar Iparragirre eta Lurdes Auzmendik eta astindu ederra eman zioten genero ikuspegitik *Zeruko Argiari*.

Lehen begi kolpean 100 urteotako balantzea ez da oso ona, eta genero ikuspegiaren hutsunea nabarmena. Eskuotan –edo pantailan– duzuen aldizkariarekin alderatuz, zerbait ikasi dela ezin uka daiteke. ●

MAHAI-INGURUA BILBON MARTXOAREN 27AN

Lau langile, lau borroka feminista



ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Orain bi aste esan genizuen txoko honetan, Bizkaiko erresidentzietako borrokari eta 378 eguneko grebari buruzko kontaketa eta testigantzak biltzen dituen *Berdea da more berria* liburua ez zela argitalpen hutsean geratuko, egingo zirela gaiari lotutako gauza gehiago. Hemen lehena. Liburua elkarlanean argitaratu duten Manu Robles-Arangiz Institutuak eta ARGIAK mahai-ingurua antolatu dute Bilboko Kafe Antzokian, martxoaren 27an.

Bizkaiko erresidentzietako langileen borroka sektore feminizatu eta prekari-zatua den zaintzako langileen egoera atera ditu kalera. Orain arte lan-gatazketan beste sektore batzuetako gizonak irudikatu izan ditugu borrokan, eta hau berria zaigu. Ez dira, tamalez, kasu isolatu bat, eta zaintzako sektore feminizatu asko dira prekarietate egoeran bizi direnak. Borrokan ari dira garbitzaileak, Gipuzkoako erresidentzietako langileak, etxez etxe lan egiten duten emakumeak...

Martxoaren amaierarako antolatuta-

ko mahai-inguru honetan hitza hartuko dute zaintzako esparru ezberdinetan ari diren lau emakume langilek. Banan bana aurkeztuta: Arantza Arrien, baserritarra, Etxaldeko Emakumeak taldekoa: emakume baserritarrek ederki dakite zer den lana eta zaintza etxean egitea. Elena Vasconez, hoteletako gela-garbitzailea edo "kelly": kasu honetan emakume migrantea, sektoreko portzentaia altu bat den moduan, eta hitz egingo du bigarren zapalkuntza horrek duen eraginaz. Soraya García, Bizkaiko egoitzetako ELAko ordezkeri sindikala: sektorearen egoera azalduko du. Eta egongo da etxeko langile interno bat ere (oraindik pertsona zehatza lotzen ari dira), zaintza lanetan etxean ordu asko pasatzen dituzten emakume sarri migranteen ordezkeri.

Mahai-ingurua Onintza Irureta ARGIAko kazetariak eta *Berdea da more berria* liburuaren egileak gidatuko du. Gure komunitate osoari zabalitzen diogu deia martxoaren 27an, asteazkena, 18:30ean Bilboko Kafe Antzokira bertaratzeko. ●



ARGIA

1919 · 2019

EKITALDIAK

FAXISMOA GAUR ETA HEMEN HITZALDIA

Hizlaria: **Hedoi Etxarte**📍 **Azpeitia** Sanagustin Kulturunean🕒 **Martxoak 20**, 19:00

Elkar-Ekin taldearekin elkarlanean.

ZAINZAKO LANGILEEN BORROKAK MAHAI-INGURUA

Mahaikideak: **Soraya García** (zaharren egoitzak), **Elena Vasconez** (kelly-a) eta **Arantza Arrien** (Etxaldeko Emakumeak).📍 **Bilbo** Kafe Antzokian🕒 **Martxoak 27**, 18:30**Manu Robles-Arangiz**

Institutuarekin elkarlanean.

HIZKUNTZA ESKUBIDEAK, NORENAK?! MAHAI-INGURUA

Mahaikideak:

Eneka Alvarez eta **Arkaitz Zarraga**📍 **Arrasate** Kulturate🕒 **Apirilak 4**, 19:00**Arrasate Euskaldun Dezagun**

elkartarekin elkarlanean.

KATALUNIAKO PROZESUA ETA GARAIENAREN IKASBIDEAK HITZALDIA

Hizlaria: **Jesús Rodríguez** (Directa)📍 **Gasteiz** Hala Bediren Lokala🕒 **Apirilak 5**, 18:30**Hala Bedi** irratiarekin elkarlanean.

"KAZETARITZA EZ DA DELITUA" ELKARRETARATZEA

ARGIAko kazetari Lander Arbelaizti, hizkuntz eskubide baten urraketa informatzeagatik bi ertzainek salaketa jarri diote. Ondorioz, kazetari bat bere lana egiteagatik epaitua izateko arriskuan da. **Martxoaren 20an Donostian** egingo da epaiketa aurreko saioa, eta ARGIAk dei egiten du **epaitegi aurrean (Egia auzoan) 11:30ean** elkartasuna adierazteko biltzera.



“Madrilera joan nintzen lan egiteko aukerarik ez nuelako Euskal Herrian”

ITZIAR ITUÑO AKTOREA

Aktore-ibilbide osoa Euskal Herrian garatu ostean, Espainiara joan zen Itziar Ituño hemen ez zituen lan aukeren bila. *La Casa de Papel* telesaileko protagonistetako bat da, Goenkalen bezala, polizia buruaren rola hartuta. Netflixek erosi ostean, mundu osora zabaldu den fenomeno bilakatu da ekoizpena. Hirugarren denboraldia grabatzen ari dira orain. Telesailen urrezko aro honen gozo eta gaziak barrutik nola bizi dituen kontatu digu.

TESTUA | LANDER ARRETXEKA BEREZIARTUA
ARGAZKIAK | DANI BLANCO

La Casa de Papel telesailaren hirugarren denboraldian ari zara lanean. Ezkutuan eta filtrazioak saihesteko ahaleginean ari zarete grabatzen. Lan egiteko moduan eragin du horrek? Grabatzeko orduan ez. Taldea berbera da, ondo ezagutzen dugu elkar eta horrek lasaitasuna ematen digu. Baina beste alde batetik orain Netflix da ekoizlea, eta haien egiteko modua desberdina da. Oso ondo kontrolatzen dituzte denborak, noiz iragarri gauzak eta noiz ez, promozioa... Zaila ari da izaten, jende dago zain, eta beti daude filtrazioak. Presio gehixeago ere badugu. Lehen bi denboraldiak grabatu genituenean Antena3-n emateko zen, eta ez zuen horrenbesteko oihartzunik. Orain, aldiz, badakigu egiten ari garena begi asko ikusiko dutela, mundu osoan gainera. Esaten dizutenean Saudi Arabian, Turkian edo Brasilen ari direla zuk egindakoa masiboki ikusten...

Baduzu denborarik beste ezer egiteko? Egia esan ez. Denbora asko eskatzen du, eta tarte gutxi geratzen da beste ezertarako. Eskaini didate antzerki lanen bategan aritzea, adibidez, baina ezetz esan behar izan dut.

Telesailen gorakada hau, gehienok kanpotik ikusten duguna, barrutik bizitzea tokatu zaizu zuri. Kolpetik mundu zabaleko milioika lagunek dute zure berri.

Egia da, bai. Euskal Herrian bizi naiz, lehen bezalaxe, bertan ditut nire harremanak... Baina aldatu dena da sareetan dudak presentzia, adibidez: fan klubak eta halakoak. Zure bizitzan horri ere lekua egin behar diozu, eta kudeatzen ikasi. Jendea ni bisitatzera ere etorri da Euskal Herrira. Badago Buenos Aireseko neska bat euskara ikasten hasi dena ni euskalduna nintzela jakin zuelako. Horrelako historia bitxiak izan ditut, eta hori da alde

politena, baina itsusiagoak ere tokatu zaizkit. Sareak bi aho ditu, labanak dituen moduan. Bat oso polita eta bestea ilunagoa. Beti daude zoroak, edozer egiteko prest daudenak. Horrekin bizitzen ere ikasi behar izan dut, zoritxarrez.

Zergatik izan du horrenbesteko arrakasta La Casa de Papel-ek?

Faktore asko elkartu dira. Batetik, akzioa eta umorea oso ondo uztartzen ditu. Gero, horrekin batera, pertsonaiak dira oso bereziak. Estereotipetik harago doaz: oso humanoak dira, ahultasunak dituzte, denok ditugun moduan. Kontatzeko modua ere berezia da, kamera mugimendutatik hasi eta argiztapeneraino, estetika propio bat sortzeko ahalegin berezia dago atzean. Eta kritika sozial puntu bat ere badu, sistema ekonomikoari aurre egin nahi dion talde bat delako protagonista. Horren guztiaren nahasketa izan dela esango nuke.





Zaila izango zen, lanean hasi zinetenean, halakorik irudikatzea.

Bai, noski. Niretzat *Loreak*-ekin Oscarren ataritan egotea sekulakoa zen, uste nuen ez nuela gehiago antzekorik biziko. Baina, bat-batean, honekin egin dut topo, eta proposamenak hasi dira toki askotatik iristen. Dena den, Netflix tartean sartzea izan da erabakigarria, eta halako plataformek duten gaitasunaren berri bagenuen lehenago ere. Uste dut izan daitekeela bide interesgarria euskal ekoizpenentzat ere. Gertatu da, adibidez, *Handia*-rekin eta *Errementari*-rekin.

Garai "berrien" beste aurpegi bat omen da sare sozialetan aktoreek duzen arrakastari begiratzen diotela ekoizleek lan batean hartu edo ez erabakitzeke.

Begiratzen da bai: zure perfila nolakoa den edo zenbateko oihartzuna duzun. Publizitatea egiteko eskaintzak ere horren arabera jasotzen ditugu. Baina horrek ez du bermatzen proiektu baten arrakasta. Bermatzen duena da hautatzen duzun istorioa, nola dagoen kontatua, baldintzak onak diren... Kalitatea, azken finean. Hasieran hurbilduko dira zure jarraitzaileak, baina egin duzuna ona ez bada, ez diote eutsiko. Alde horri kasu gehiegi egiten diogu, baina oso tranpatia izan daiteke. Gure kasuan, aktore asko ez ginen batere ezagunak.

Pentsatzen dut aktoreentzat, baita lehen lerroan daudenentzat ere, asko aldatu dela lan-mundua telesailen gorakada honekin.

Espainiako Estatuan behintzat, oro har, lehen baino askoz aukera gehiago dago orain lan egiteko. Plataforma asko dago, betiko telebistek ere jarraitzen dute. Aukerak biderkatu dira. Baina paradoxa bada ere, Euskal Herrian ez. *Goenkale* amaitu zenetik, euskal aktoreok oso aukera gutxi izan dugu telebistan lan egiteko.



“Goenkale amaitu zenetik, euskal aktoreok oso aukera gutxi izan dugu telebistan lan egiteko”

Hemen nahiko lan izan bazenu, akaso ez zinatekeen kanpora joango?

Ni Madrilen hasi naiz lanean 40 urterekin. Interesik izan banu, lehenago joango nintzen proba egitera. Hemen nahiko lan izan dut denbora askoan, eta oso gustura aritu naiz. Baina noski, lanik gabe gertatzen zarenean bilatu behar dituzu beste aukera batzuk, eta hemen ez badaude, kanpoan bilatzen dituzu. Madrilen sor-

tu zaizkit niri, eta noski, joan behar izan dut. Arrakasta handia izan dut, bai, baina pauso hori ematen duzunean ez dakizu zer gertatuko den. Ez da erraza: etxetik joan beharra, ingurunez aldatzea...

Maiz kanpoan arrakasta izatean aitortzen zaio balioa bertakoari. Zure kasuan hala izan da?

Sumatu dut orain nirekin kontaktatzen dutela gauza batzuetarako eta lehen ez zutela egiten. Aurpegi bisibleagoa da nire orain. Lan aldetik, gauza gehixeago eskaini dizkidate, baina ez dut gehiegi igarri. Euskaraz egingo den film batean eskaini didate tokia, baina lan egin dut haiekin lehenago ere.

Gero eta euskal aktore gehiago ari zarete Espainiako ekoizpenetan. Askori euskaldun estereotipatuaren papera egokitu zaie. Zuk lortu duzu horretatik ihes egitea.

Gero eta gehiago gara, bai. Besterik ez duzunean, ez duzunean aukerazterik, datozen bezala onartzen dituzu gauza batzuk. Niri ere tokatu zait halako paper txikiren bat, baina, oro har, egia da zorte handia izan dudala. Izatekotan, poliziaren papelean sailkatu naute, edo bestela mediku, abokatu eta antzekoetan. Hala ere, pozik nago. Uste dut azkenaldian paper poliedrikoak, interesgarriak eta estereotipotik harago doazenak tokatu zaizkidala.

La Casa de Papel-en kasuan, Raquel Murillo emakume indartsua eta boteretsua da, baina babesgabe sentitu dena genero-indarkeria jasan duenean.

Emakume boteretsua da, polizia, arma bat ere badu... Baina ez da gai etxean duenari aurre egiteko. Hor bazegoen zer landu, eta oso interesgarria izan da niretzat. Beste alde batetik, lanpostu oso garrantzitsua duen arren, amaren zaintzaz arduratu behar du. Betiko rolean dago, baita goi-kargua izanda ere. Kanpora begira oso indartsua da, baina bere ahuleziak ditu, eta horrek bihurtu du erronka interesgarria.

Berandu bada ere, telesailetan sarkontasuna duten emakumezko pertsonaiak topatzea gero arruntagoa dela dirudi. Bat zatoz?

Hala da, bai. Ni probak egiten hasi nintzenean ez nekien zehazki Raquel Murillo nolakoa izango zen. *Goenkaleko* Nekane etorri zitzaidan burura. Hamahiru urtez aritu nintzen poliziarena egiten

eta ez nuen errepikatzen gogo handirik, egia esan. Baina ikusi nuenean pertsonaiaren arku, nolako abaniko emozionala duen eta zenbateko garapena duen istorioan zehar, asko erakarri ninduen. Duela gutxi arte, adin batetik aurrera, emakumeak desagertu egiten ginen istorioetatik, eta kasu honetan emakume heldu batek protagonismo handia du. Aldaketa txiki bat antzematen da norabide horretan, baina txikia oraindik.

Nazioartean sarituak izan diren telesailetan ere emakume protagonista asko dago. Beste kontu bat da atzeko lana: gidoilarietan, talde-teknikoan edo zuzendarietan antzematen da joera bera?

Horretan ez da igartzen, ez. Istorioak sortzen dituzten mahaietan oso emakume gutxi esertzen da. Gidoilarien artean ere gutxi dira, zuzendarietan berdin. Talde teknikoan gero eta emakume gehiago ikusten dut, baina kamera lanetan oso gutxi, adibidez. Istorioak sortzen dituztenek gizonak izaten jarraitzen dute, eta hori garrantzitsua da, begirada hor ezartzen delako. Genero ikuspegitik, erakusten dena baino gutxiago aldatu da fikzioaren mundua.

La Casa de Papel-en arrakastak erabat estali du euskal presoen aldeko kanpaina batean parte hartu zenuela-eta zenbaitek aktibatu zuen boikot deialdia. Gogorra da iritzi pertsonalak emateagatik aukera profesionalak galtzeko beldurra izan beharra?

Zenbait gairi buruz iritzi pertsonala emateak lan aukerak mugatzen ditu, bai. Nire kasuan, presoen eskubideen alde azaltzeagatik izan zen. Galdu ditut lan aukera batzuk horregatik. Jende

askok hartu duen bidea isiltasuna izan da. Errespetu osoa diet aukera hori egin dutenei, eta ulertu ere ulertzen dut, baina une batzuetan, segun eta jokoan zer dagoen, aurrera egin behar da. Egia da, baita ere, gure irudi publikoa gehiegi erabili nahi izaten dela tarteka. Ardura hori hobe banatu beharko genuke, gutxi batzuek zama guztia daramatelako bestela. Willy Toledori gertatu zaion moduan: ezin du bere bizimodua garatu bere ideia politikoak direnak direlako, eta hori oso larria da. Oso babesgabe gaude. Gogorra da.

“

“Duela gutxi arte, adin batetik aurrera, emakumeak desagertu egiten ginen fikziozko istorioetatik”

Urte askoan ez da telesailik egin Euskal Herrian, eta telesailen industria hainbeste aldatu denetik, ia bat bera ere ez. ETBko arduradunek diotenez, garestiegia omen da, ez omen dago ikuslerik... Nondik aska daiteke korapilo hori?

Bide bat izan daiteke koprodukzioak egitea. Traba da gaztelaniaz egin behar izaten dela horrela denean, baina ez luke zertan. Bilatu beharko lirake bideak koprodukzioak egiteko euskaraz, zer dakit ba nik, diasporako komunitateek ere esku hartuz edo antzeko formulekin. Aldaketa sekulako abiadan dator eta espabilatu egin behar dugu.

Idea falta dagoela esaten dute batzuek. Ez dut uste. Ideiak badaude, falta dena da arrisku hori hartzeko adorea, ausardia. Horretarako dirurik ez dagoela ematen du, baina ziur nago ideiak egon badaudela. Falta dena da horietan sinestea. Serieak inoizko gorakada handiengan daudenean, ez dugu telesailik eskaintzeko. Sintomatikoa da, kate generalistek oro har ikusle pila bat galdu dute, nor bere erritmoan ikusten dituzte edukia plataforma hauen bidez, eta horretara moldatu beharra dago. Iruditzen zait ETB ez dela oso bizi ibili horretan.

Zinemaren adibidea argia da.

Bai, baina hor ere laguntza berandu iritsi da beti. Erakundeak pauso bat atzetik doaz normalean. Sortzen dira proiektuak, egiten dute aurrera, eta instituzioek ikusten dutenean ondo ateratzen direla orduan erabakitzen dute babestea. Baina alderantziz behar luke. Ideiak bultzatu behar dira, nahiz eta ez beti ondo atera. Saiatzeko unean behar da bultzada, ostein erraza da. Arrakasta izan dute aurrekontu gutxiko proiektuek, eta horrek frogatzen du badagoela gaitasuna, badagoela interesa. Telesailen ere, ahalegin berezi bat eginez gero...

Zein ondorio ditu euskarazko telesailen gabezia horrek?

Lehen bazeuden erreferenteak eta orain desagertu dira, krisia dela bestea dela. ETB1 sortu bazen helburu batekin, ez du inolaz ere bete. Gaur egungo gazteek, fikzioan, ez dute euskarazko erreferenterik. Mundu osoa dute eskura, gaztelaniaz, ingelesez, eta zaila da horrekin lehiatzea. Baina saiatu ere ez egitea lotsagarria da. Gainera, lehen, ez bazen hemen ekoizten, bikoiztu egiten zen gutxienez. Orain hori ere ez, pentsa. ●

Arabako bertsozale Txapelketa 2019
1. FINALERDIA

MARTXOAK 9
Larunbata 17:30
LEGUTIO,
Kultur etxean

Gai-emailea:
Aitana Iradier Martinez de Albeniz

Partzialatzaileak:

Eabesle nagusiak:

Taldeen taldeko babesleak:

Hedabideak:



LIBURUA

Itsasargiak ez dira inoiz betiko itzaltzen



URTEBETE ITSASARGIAN MIREN AGUR MEABE

ELKAR, 2006
ELEBERRIA (HAUR ETA GAZTE LITERATURA)

AMAIA SERRANO MARIEZKURRENA

Duela gutxi ikusi nuen Ahotsak Ahozko Ondareak egindako *Zer da gerra? 1936ko gerra gaztetxoan bihotz-begietan* dokumental laburra. Bertan ikusten da zer ideia duen bakoitzak gerraz, eta haurren ezezagutza gazteek osatzen dutela jakiteak lasaitu egiten du bat.


Nolanahi ere, etxean gerraz hitz egin dietenek nahiz jarauntsi hori jaso ez dutenek Haur eta Gazte Literaturaren bidez ere badute ezezagutza hori erdiesteko aukera: Martin Ugalderen *Itzulera baten historia* (1991), Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* (1991), Joseba Sarrionandiaren *Kolosala izango da* (2003), Miren Agur Meaberen *Urtebete itsasargian* (2006) eta Patxi Zubizarretaren *Hiru gutun Iruñetik* (2012)

dira, besteak beste, gaiari heltzen dioten nobelak, ertz ezberdinetatik heldu ere.

36ko Gerraren amaieratik 80 urte pasa direnean, Haur eta Gazte Literaturak literarioki egindako ekarpenak oso aintzat hartzekoak dira: haurren bidez jasotako testigantzak, deserriaren sentimendua, kontzientzia-pizteak, ideologia ezberdinetako pertsonaiak (makiak, sozialistak, nazionalistak eta abar), eta emakumeek gerran izandako askotariko rola agertzen dira erregistro, narratzaile eta genero literario ezberdinak uztartzen dituzten eleberriotan. Ezaugarri horiek are bereziago bilakatzen dira, kontuan harturik helduentzat sortutako eleberrietan baino lehenago agertzen direla.

Hala bada, Miren Agur Meabe izan da

gerrari buruzko nobela bat idatzi duen lehen emakumea. Gerra hasitakoan osaba farozainarengana joan behar duen Jon gazteak kontaktzen dizkigu gertaerak. Narratzaile rola berea izanagatik, ahots ugari biltzen dira narrazioan, esaterako emakume aktibistena (haien aldarrikapena beste eleberrietan baino argiagoa da, gainera). Metaforaz eta konparazioz beterik, azpigenere ezberdinak uztartzen dira nobelan (egunerokoa, gutuna, narrazio liriko), eta gerraurreko euskal kulturako zenbait sorkuntza lanen eta proiekturen berri ematen da. Gertakari historikoen lekuko, itsasargiak 1936ko gizarte gatazkei, genero rolei eta kultur talkei begiratzen die, irakurleari ahanzturaren itsaso zabaletik ateratzeko bidea eskainiz. ●



DISKOA

Batu eta hunkitzeko gaitasuna



2012ko abenduaren 25ean eman zuen aurreneko kontzertua The Potes talde arrasatearrak.

IKER BARANDIARAN

Badira talde gutxi beraien herrian profetak direnak; eta The Potes bada horietako bat. Bestelako bariarik hasi zen taldea, ia txantxa moduan: ondo pasatzeko asmotan lagun talde bat elkartu eta banjoaren aukerak probatzearekin batera The Pogues zein traza horretako folk talde ganberroen kantak bertsionatzeari ekin zioten. Emaizta jendaurrean plazaratzen hasi eta harrera oso beroa jaso zuten sorterrian, Arrasate aldean batez ere. Tamalez, baina, epe laburrera taldeak Bergarako Gaztetxean egin zuen kontzertuan RIPeko gitarra jotzaile eta The Poteseko banjo jotzaile Jul Bolinaga bihotzekoak jota hil zen. Betirako orbaina.

Gertaera latz horrek kolokan jarri zuen taldearen jarraipena, baina Julek

berak nahiko lukeen moduan, denborarekin aurrera egitea erabaki zuten eta jende gaztea batuta poliki-poliki kanta propioak idazteari ekin diote berriro, Irlandako folkaren kutsua badutenak, jakina, baina rockeroagoak eta gitarreroak diren bestelakoak ere sortuz. Folkaren eta rockaren arteko orekan daude orain, eta emaitza hurbila da, lagun artekotasuna deitzen duena, erraz abestekoa eta energia zein melodia biak bere gain hartzen dituen. Taldea hazi egin da, zalantzarik gabe.

Oihu bat folk-pop-rocka da, oso itsaskorra eta barnerakoia; *Sorry I'm drunk* folk-punka, The Solanosen lapur eskola bereko triki bihurria duena; *Zure babesa* taldekideen iturri di-



AMETSAK DIRA EGI ERABAT BETE AURRETIK THE POTES

MAUKA, 2018

ren Pogues eta Clashen ezkontza ezin hobea; *Mom & dad* koadrilan abesteko folk balada goxoa; *Until the last one is coming* punk-rock melodiko bizi-bizia; *Revolution* folk-punk itsaskor bezain gitarreroa; *Beldurrik ez* Strummer eta McGowanen denborapasa; *Another song* eta *Get your rights* biak 77ko punkean oinarritutako rock oso melodikoa, batez ere hit-a den azken hori. *Zure etsai zure lagun min* hillbillytik duen folk aparta; eta *Lorolo* lotsarik gabeko izena duen taldearen aurkezpen parranderoa.

Horrez gain, taldearen bi klasiko berreskuratutakoak dituzte: *La sombra del banjo* balada ederra; eta oroimen one-nak altxatutako *Jul never go* folk hun-kigarria. ●



Arrastoa utziz

TESTUA ETA ARGAZKIA | IRATI MAJUELO ITOIZ

Otsailak 21, osteguna, arratsaldeko zazpiak. Nabarrerria plazan eserita zerbeza bat edateko giroa, aldaketa klimatikoaren udaberrir aurreratua aprobeztatzeko gogoia. Hala ere, jendea tantaka baina etengabe sartzen ari da Zabaldiko Kalaska gelara. “Zatoz zure lagun feministekin”, hala zion gonbidapenak. Nabari da, martxoaren 8a hurbil dago eta aisialdiko eskaintza feminista hazi egiten da garaiotan. *Arrastoa*k, ordea, geratzeko sortu omen den ekimena da, hilabetero iluntze feminista bat antolatzeko asmoa baitu Iruñerriko Bilgune Feministak.

Kulturaren arloan ari diren emakume*-entzat plaza berri bat izan nahi du ekimenak, sorkuntzaren bidez arrasto feminista uzten dutenentzat oholtza eroso. Eta Iruñerriko feministentzako topaleku. Auzoetako taldeekin harremana sendotu eta sare horrekin denbora gehiago konpartitzea dute helburu; bilera, manifa eta kontzentretatik kanpo, alegia. Eta noski, pintxo-pote on batek lagunduta, betiere. Lehenengo, beraz,

otsailean eta Alde Zaharrean. Lehenengo sorpresa ere hasieran etorri da: antolatzaileek sorkuntzaren bidez esker-tu nahi diete haien lana sortzaileei, eta horretarako, datorrenari beste artista baten obra oparituko diote hilabetero. Honako honetan, Naia Miraren margolan bat eman diote kontzertua abestera datorren hirukoteari.

Hirukote moduan azaldu dira, talde gisa izenik izan nahi ez eta emanaldi bakoitzean berri bat hartzen baitute. Leku eta momentuaren arabera izenaldatzeak. Gaurkoan, “Kontzertu agustikoa” deituko diegu. Gasteiztik datoz, gitarra soil batekin. Ez mikrorrik, ez anplirik, biluzik hartu ditu publikoak Zabaldin: koaderno txiki batean idatzitako hitzak eta hiru ahots. Goizean izan da Talka espazio feministaren desalojoa, eta amorruek oihartzuna egiten du oraindik taldea oholtzara igo denean. Hirukoteak hari eskaini nahi izan dio ez kanta bat, ez bi, baizik eta kontzertu osoa. Eta zer nolako kontzertua.

Idaztea dela diote autoerparatzea... Gitarrarik gabe hasi dira, haren bizka-

‘KONTZERTU AGUSTIKOA’, ARRASTOAK EKIMENA

NOIZ: otsailak 21.

NON: Iruñeko Zabaldi.

rrean perkusioa egiten gero, akordeak sartzen pixkanaka. Gitarra esku batetik bestera doa kanta bakoitzean, letrak bitzen dituen koadernotxo ere bai. Entsegu batean baleude bezain natural, elkarri begiratu eta nota artean ere irri eginez. Indartsu bezain gozo abesten dituzte denak: Izaro, Silvia Tomàs, Benito Lertxundi, Silvia Perez Cruz, Xabier Lete, Izaki Gardenak... Berdin da zeinen bertsioa den, haiena da kanta une horretan, haientzat beren-beregi sortua, haiek nahieran moldatua. Mikel Laboaren bilduma batekin amaitu dute, eta entzuleok ere, haiekin batera kantatzeari ekin diogu. “Beste bat, beste bat” eskatzen duten oihuak entzuten dira, baina hurrengoaren zain geratu beharko, koaderno itxi eta gitarra gorde baitute.

Txiste erraza egiten dut: “Kontzertu agustikoa” izan da benetan. Baliabideen soiltasunak hurbilarazten zaituen kontzertu berezi horietako bat. Izen bakoitzak azalberritze bat badakar, adi jarraitu beharko zaio hirukotearen bidetari. Arrastoa, behintzat, utzi dute. ●

M. Lanz, O. Llorente, A. Lopez

"IRUNGO EMAKUMEAK PLAZARA!"
DOKUMENTALAREN
KOORDINATZAILEAK



PASEO HISTORIKOA

Martxoaren 16an paseo historikoa egingo dute Irunen, Mertxe Tranche historialariak gidatuta. Ibilaldiak zazpi geldialdi izango ditu, dokumentaleko zazpi historien lorratzean: talde onetan aritutako Leire Landa futbolaria, langile borroka eredu berritzaileak ekarri zituzten poxpolo-egileak, emakumeek ikasi ahal izateko tinko borrokatu zuen Julia Iruretagoiena, Irundik Donostiarako joan-etorria oinez egiten zuten mandatugileak, Menchu Gal margolari entzutetsua, Dolores Salis eskulturagile nekaezina eta gizonen munduan bidea urratu zuen Vicenta Olazabal negozio-emakumea.

"Emakume guztiak ez zeuden etxean gordeta, errelato hori iritsi zaigun arren"

Hainbat esparrutan historia egin duten emakumeak itzalpetik atera nahi izan dituzte Parean elkarteko Miren Lanz Solbes, Oihana Llorente Arretxea eta Ainara Lopez Zarcok. Beste askok ere gogo bera zuela erakutsi du *Irungo emakumeak plazara!* dokumentalaren harrera beroak. "Estreinaldira ama-alaba ugari etorri ziren batera; polita izan zen".

TESTUA | **MIKEL GARCIA IDIAKEZ**
ARGAZKIA | **DANI BLANCO**

Nola sortu zen dokumentalaren ideia?

Llorente: 2010ean, Bilgune Feministakook ikusi genuen Irunen zeuden 350etik gora kaleetatik bik baino ez zutela emakume izena, eta beste bik emakumeei loturiko kolektiboen izena. Hori horrela, Mertxe Tranche historialariarekin batera Irungo historiatic emakumeak berreskuratzeko lanari ekin genion eta kaleak izendatzeko hamar izen propio eta kolektibo proposatu genizkien alderdi politikoei. Emaitza: bederatzi urteotan lau izate-tik hamaika izatera igaro direla genero ikuspegia aintzat hartzen duten kale izenak gure herrian.

Lopez: Eta ikusgarritasun horrek badu bere garrantzia, pertsonaia jakin batzuk iruditegi kolektiboan kokatzeko balio duelako, eta kaleen izenak ere badirelako politika egiteko modu bat.

Lanz: Lanketa horren bigarren buelta izan da dokumentala. Kaleen izenak hor daude, baina herritarrek badakite zeintzuk izan ziren emakume horiek? Hari horri tiraka zazpi historia osatu ditugu.

Harrigarria da dokumentalean ageri diren emakumeetako batzuk

ezezagunak izatea askorentzat. Zeinek idatzi du gure historia?

Llorente: Historia idatzi da garaileen eta nobleen ikuspegitik, eta emakumeek betetzen zituzten rol eta espazioei ez, beste rol eta espazio batzuei eman zaie garrantzia. Adibidez, dokumentalean ageri diren mandatugileak [Irundik Donostiarako joan-etorria oinez egiten zutenak] literaturan aurki ditzakegu, baina erroldetan agertu ere ez dira egiten. Funtsezko lanbidea zen garai hartan, baina historia idazterako orduan ez ziren futsezko, antza.

Lopez: Inudeekin berdin. Beste batzuen seme-alabei bularra ematen zieten inude asko izan zituen Irunek, kohesio eta zaintza ikuspegitik sekulako garrantzia zuten, baina apenas dagoen dokumentatuta, esparru horiei ez zaielako inportantziarik eman.

Mertxe Tranche ez zuen erraza izango dokumentatzeko...

Llorente: Berak beti dio ez dela batere erraza dokumentuetan emakumeak aurkitzea. Mertxek urtetako lana eta jakintza dauka, eta arrasto bati tiraka, hemendik eta handik lortutako hariak lotuz... egin ahal izan du hain doku-



IRUNGO 350ETIK GORA KALEETATIK, EMAKUME IZENA BIK BAINO EZ ZUTELA IKUSTEAK ABIATU ZUEN ABENTURA HAU, "KALEEN IZENAK ERE BADIRELAKO POLITIKA EGITEKO MODU BAT". EZKER-ESKUIN: AINARA LOPEZ, MIREN LANZ ETA OIHANA LLORENTE.

mentazio lan handia, baina oro har ez da emakumeen inguruan idatzi.

Lopez: Informazio asko adibidez elkarrikiten bidez lortzen du. Eta hain juxtu dokumentala horretarako aitzakia izatea ere nahi dugu. Estreinaldira etorri zirenen artean solastatzeko gogoia antzeman genuen, ama poxpolo-egilea zuela kontatu ziguna, ezagutzen zituzten historiari partekatu nahi zituztenak... Ahoz aho familia barruan transmititutako jakintza asko dago oraindik plazara atera ez dena, emakume asko azaleratu gabeak; balio dezala dokumentalak horretaz guztiaz hitz egiteko.

Lanz: Aperitiboa eta abiapuntua baino ez delako dokumentala, jakin-minerako nahia ireki nahi duen eta osatzeko dagoen tresna, testigantzekin, herrikoek egin ditzaketen ekarpenekin... Ikasleei zuzendua jaio zen dokumentala eta ikastetxeetan jorratzeko eta sakontzeko diseinatu genuen, ez genuen datu zaparrada izatea nahi.

Zein ezaugarri batzen ditu dokumentaleko protagonistak?

Llorente: Isilaraziak izan diren irundarrak dira, emakume borrokalaria, bakoitza bere esparruan. Aldi berean, ezberdina izatea ere bilatu dugu: bi mendetako

emakumeak, esparru eta maila ugariak, pobre eta burges, kirolaren, artearen edo enpresa munduaren arlokoak... Emakume anitzak.

Lanz: Bai, isilaraziak emakume guztiak izan dira historian, eta hain juxtu hauek borrokalaria izan zirelako iritsi zaizkigu beren aztarnak gaurdaino.

Lopez: Eta uzten duten gogoeta da ziurrenik Julia, Vicenta, Dolores... gehiago egon zirela, ez direla adibide isolatu eta bakanak, baina ez ditugula ezagutzen. Zergatik da iritsi zaigun errelatoa, duela gutxira arte emakume guztiak zirela etxeko-andre? Ez, denak ez zeuden etxean gordeta, eta historia ez da zerbait lineala izan, garai aurrerakoiagoak eta atzerakoiagoak bizi izan ditugu, eta beti izan dira bestelako bizimodua eraman duten emakumeak. Historia deseraitzeko ere balio behar du ikus-entzunezko honek, historiari eta gure nortasunari beste begi batzuekin begiratzeko, emakume erreferentzialak ere baditugulako gure historian.

Ikastetxez ikastetxe mugitu zarete dokumentalarekin.

Llorente: Irungo zazpi ikastetxe publikoetara jo dugu, Lehen Hezkuntzako lau garren mailako ikasleengana. Bertaratu

eta galdetzen genien ea 350 kaleetatik euren ustez zenbatek zuten emakume izena 2010ean. "100" zioten, "50"... eta 2 esaten genienean, zur eta lur geratzen ziren. Hamaikara iristeko egin dugun bidea azaltzen genien, eta segidan dokumentala ikusten zuten.

Lanz: Ondoren, hiru hilabeteetan zehar ikastetxe bakoitzak dokumentaleko emakume bana landu du, ikus-entzunezkoa abiapuntu hartuta.

Llorente: Gogotsu heldu diote gaiari: Mertxe Tranche eskolara eraman dute batzuek, dokumentaleko emakumearen semearekin harremanetan jarri dira beste batzuk... Gainera, martxoaren 16ko paseo historikoan euren ekarpena egingo dute ikasleek, hilabeteotan landutakoarekin.

Lanz: Gustatzen zaigu ikastetxeekin aritzea, oraindik sobera kutsatuta ez dauden haurren balore hauek guztiak transmititu asmoz, eta hezkuntza delako gizarte honen eta gure etorkizunaren oinarri handietako bat. Esperantza dugu belaunaldi berriengan. Eta aurrera begira, proiektuari segida ematea da helburua: historiatik emakume gehiago berreskuratzea eta beste molde batzuen bidez horiek guztiak plazara are gehiago ateratzea, ikusgarriago egitea. ●



Arzalluz hil ondoren, EAJk abertzale bat kontratatzeke lan-eskaintza argitaratu du



Deia egunkariak iragarki hau argitaratu zuen joan den igandean: “Ehun urteko alderdiak berehala lanean hasteko abertzale bat bilatzen du. Eskatzen da: diskurtso independentistan eta *real politik*-ean master bat. Lanaldi osoko kontratua”. EAJko iturriek Beranduegiri esplikatu diotenez, Xabier Arzalluz hil ondoren partidua “ia abertzalerik gabe” geratu da eta “defizit” hori ore-

katzeko, bat gutxienez fitxatzea erabaki dute. Alderdi barruko norbait, adibidez Joseba Egibar, promozionatzea pentsatu ote duten galdetuta, jeltzaleek azaldu dute “harrobia lantzen duen alderdia” izanik ere, Athletic-en filosofia bera dutela: “Etxekoa ondo, baina bizilagunarena hobeto”. EH Bildu bere jokalariei kontratuak blindatzen hasi da iragarkia ikusi eta berehala. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Nasiak hutikan!



Han zuloa!



AITZAKIEZ ASPERTUTA, GIZONEI BESTELAKO ERABILPENAK BILATZEN HASI DIRA EMAKUME BATZUK.

M8ko greba bertan behera utzi dute feministek, gizonei zer egin esplikatzeaz aspertuta

Lur jota sumatu ditugu M8ko greba feminista prestatzen aritu diren emakumeak*. Deialdia bertan behera utzi behar izan dute, energia guztia xahutu dutelako gizonei esplikatzeko egun horretan zer egin behar zuten. “20 egun, 20 egun eman ditut senarrari esaten egun horretan ez duela ezer berezirik egin behar. Umeak gobernatu, emakumezko lankideen egitekoak bete, amona Sintroma hartzera eraman eta kitto”, kontatu digu Femi Ernega Turikan-ek. “Ez agobiatzeko esan ez dit ba potrohandi horrek!”. Mirentxuren senarrak, Zigor

Itoartek azaldu digu emaztea dela egoera ulertzen ez duena. “Mutil ezkerriar obrero bati Twitterren leitu diot, bikotekideak esandakoa egitea eskirola izatea litzatekeela, eta hemen inork ez du eskirola izan nahi, ala bai?. Edo denok egiten dugu greba edo inork ez. Hori da feminismoa, ezta? Ez al du guztiok berdinak izatea nahi? Ehhh, ba hori”.

M8aren harira armairutik ateratzen ari diren ar alperren izurriteari aurre egiteko oxido kuprosoarekin fumigatuko dituztela adierazi du Bilgune Feministak. ●



HITZALDIA

FAXISMOA GAUR ETA HEMEN

Hizlaria: **Hedoi Etxarte**

ELKAR-EKIN taldearekin elkarlanean antolatua

 **Azpeitia** Sanagustin  **Martxoak 20**  **19:00**



DANI BLANCO

MAHAI-INGURUA

ZAINZAKO LANGILEEN BORROKAK

Mahaikideak: **Soraya García** (zaharren egoitzako langilea), **Elena Vasconez** (Kellya) eta **Arantza Arrien** (baserritarra, Etxaldeko Emakumeak).

Moderatzailea: **Onintza Irureta**

MANU ROBLES-ARANGIZ Institutuarekin elkarlanean antolatua

 **Bilbo** Kafe Antzokia  **Martxoak 27**  **18:30**



DANI BLANCO

MAHAI-INGURUA

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK, NORENAK?!

Mahaikideak: **Eneka Alvarez**, **Arkaitz Zarraga**
Moderatzailea: **Lander Arbelaitz**

ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN elkartarekin antolatua

 **Arrasate** Kulturate  **Apirilak 4**  **19:00**



VICTOR SERRI

HITZALDIA

KATALUNIAKO PROZESUA ETA GARAI PENAREN IKASBIDEAK

Hizlaria: **Jesús Rodríguez** *Directako* kazetaria

HALA BEDI irratiarekin elkarlanean antolatua

 **Gasteiz** Hala Bediren lokala  **Apirilak 5**  **18:30**

LIBURUA
SALGAI!
14€

HELBIDE HONETAN:
AZOKA.ARGIA.EUS

LIBURUAREN AURKEZPENA

IRUÑEA: Martxoak 11 / 19:00
Katakarak (Kale nagusia 54)

BERDEA DA MORE BERRIA

BIZKAIKO EGOITZETAKO
GREBALARIEN TESTIGANTZAK

Onintza Irureta Azkune



MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

ARGIA